

**Bestak**

Berroetan → 31

BERA → 12Gazte Eguna
Iarunbat honetan**ITUREN → 18**Malerrekako Gazte
Eguna maiatzaren 22an**LEITZA → 28**Kultur Aroa maiatzaren
23tik ekainaren 6ra**BAZTAN → 33**Bidasoako lehen izokina
Martin Apezetxeak

Giltzurrunak, gibela, bihotza, pankrea, birrikak, hertzeak, hezurak, ehunak, korneak eta bihotz-balbulak dira gaur egun transplantatzen diren organoak. Gainera, gero eta gehiago dira hildakoaren organoak emateko prest dauden familiak. Hego Euskal Herrian, adibidez, ia %90ak erraten du baiezkoa. Eta horri esker bizitza aunitz salbatzen dira.

ERREPORTAJEA → 4-5

«Denak izaten ahal gara hartzaile edo emaile, eta emailerik gabe ez dago hartzailerik»

Gabriel TXOPERENA | Donostiako Ospitaleko Organo Tranplanteen Koordinatzailea**KIROLIZKETA → 40****Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazi du lera Agirre leitzarrek**

Esku pilota utzi eta 13 urterekin hasi zen palan lera Agirre leitzarra. Geroztik 12 bat txapel eskuratu ditu, eta horietan azkena, Oiartzunen, Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazita. Bigarren aldia da txapelketa honetan garaile ateratzen dela.

**lera AGIRRE** | Leitzako palista**ELKARRIZKETA → 3****Larunbateko manifestaziorako deia**

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea lelopean manifestazioa egingen da Iruñean.

GIZARTEA → 13**Portu, Sarasola eta San Sebastianen epaiketa**

Lau eguneko epaiketaren ondotik, sententziaren esperoan gelditu dira lesakarrak.

ZOZKETA → 47



**ESKAINITZA
BEREZIAK**

muebles
ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

ETHALAR ERDIAN ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI



170.000€
tik aurrera

- > Etxebizitza ekipatuak, bizitzera sartzeko prest
- > Sukaldea eta bainugela ekipatua
- > Armairu enpotratuak logela guztietan
- > Kalitate handiko materialak, bezeroaren gustuaren arabera alda daitezkeenak

promoetxe
PROYECTOS Y CONSTRUCCIONES

Tel. 943 73 09 11 / 690 69 85 18 / Fax. 943 08 11 92 / promoetxe@promoetxe.com

Duela bi urte Nafarroako Gobernuak Euskarabidea sortu izanak, itxaropena piztu zion bati baino gehiagori, baina praktikan, agerikoa da Gobernuak euskararen aurka daraman politi-

ka. Horren aitzinean, Nafarroako euskalgintzako eragileek bat egin eta manifestaziorako deia egin dute larunbat honetarako, hilak 15, Iruñean. Ekimen honi atxikimendua adieraz-

teko aukera ere badago www.blogak.com/-maiatzak15-en. Topaguneko arduraduna den Oskar Zapata deialdia egin dutenen artean dago eta berak eman dizkigu xehetasunak.

Oskar ZAPATA | Nafarroako Topaguneko arduraduna

«Errekonozimendua eta laguntza, hori da Gobernuak zor diguna»

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 19an Egunkaria auziko sententzia jakin genuen. Sententzia horrek euskalgintza osoa absolbitzen al du?

Epaiaren pasarteren bat lasaigarria da euskaldun guztiontzako. Izan ere, epaiketa hau nagusiki adierazpen askatasunaren kontrako eraso larri bat izan da, baina zuzenean bestelako eraginak ditu: euskaldunok euskaraz informatzeko genuen tresna garrantzitsu bat desagertarazi dute, pertsona batzuk susmopean izan dituzte hainbat urtez eta beraiekin batera, euskalgintza guztia susmopean jartzera heldu denik ere bada. Ora in absolbitu dituzte, baina kaltea eginda dago eta hori konpontzerik ez dagoen arren, kalteordainak kitzatzeko eskatu behar zaie arduradunei.

Nafarroako Gobernuak euskaldunon kontra ari dela salatu duzue...

Kontra ari da, euskararen sustapena babestu eta lagundu beharrean, oztopoak baino ez dituelako jartzen: legalak, politikoak eta ekonomikoak. Lau adibide: Gobernuaren ildoko hedabideetan egungo euskaldunak ez gara existitzen, ez bada gauza folkloriko edo arkaikoekin lotuta. Gobernuak ez du aukerarik eskaintzen sare publikoan haurrak eta gazteak



UTZITAKO ARGAZKIA

Oskar Zapata Nafarroako Topaguneko arduraduna, larunbateko manifestaziorako deialdia egin dutenetako bat da.

euskaraz matrikulatzeko. laz, hedabideentzako dirulaguntzarik ez zen egon. Aurten aisialdi-kultursentsibilizazio arloak sustatzeko 32.000 euroko aurrekontua du guztien artean banatzeko: iraingarria, ezta?

Nola eragiten die horrek Nafarroako euskaldunei?

Euskubide murrizketa garbia pairatzen dugu. Administrazioarekin euskaraz ezin gara komunikatu. Euskararen sustapena kontzienteki baldintzatzen dute txarrerako:

ESKUBIDE URRAKETA

«Nafarrak gara bete-behar berdinarak izanik, euskaraz egiteko hainbatetan eskubidea ez dugunak. Hori diskriminazioa da, lege gaizto batek areagotzen duena. Eta Gobernuak modu ankerrean erabiltzen duena»

haur, gazte edo helduentzako kultur-aisialdi proiektuak ez dira finantzatzen. Eraikita duguna, dela hedabide bat, dela euskaltegi bat, dela mintzapraktika... ekonomiko ki ito ez dezaten ahaleginak egin behar ditugu. Zertarako egiten dute? Nekea, etsipena, tristura, amorrua... eragiteko. **Zein da manifestazioaren helburua?**

Gobernuari esatea: aski da! Gainerako alderdi politikoei: eskubideak ditugu eta horiek errespetatu daitezke lan egin ezazue.

Gizarteari: gero eta euskaltzale nafar gehiago gara, gurekin kontatu behar da Nafarroa anitzagoa eta demokratikoagoa eraiki nahi bada, atera zaitezte kalera, erakuts ezazue euskara bizirik nahi duzuela, babestu Nafarroako euskalgintza.

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea dela lo. Zertan gauzatu behar da eskubide hori?

Zertan gauzatzen dira gaztelaniadunenak? Horietan berberetan. Modu progresiboan bermatzen joan behar direla? Ados. Eskubide berdintasuna besterik ez dugu eskatzen. Horretarako gaztelaniak duen estatus ofiziala euskarari ere aitortu behar zaio. Pertsonen eskubideez ari gara, politikaren aurretik dauden eskubideez. Pertsonak gara betebeharrak eta eskubideak ditugunak, pertsonak gara diskriminazioa jasotzen dugunak. Nafarrak gara betebeharrak izanik, euskaraz egiteko hainbatetan eskubidea ez dugunak. Hori diskriminazioa da, lege gaizto batek areagotzen duena. Eta Gobernuak modu ankerrean erabiltzen duena.

Zer lortu nahi da zehazki Gobernutik?

Ez dutela egin nahi bada-kigu, baina errekonozimendua eta laguntza, hori da Nafarroako Gobernuak zor diguna.

MEDIKUNTZA → ORGANO TRANSPLANTEAK HIZPIDE

Giltzurrunak, gibela, bihotza eta birrikak dira transplanteetan gehien behar diren organoak

Gero eta gehiago dira, hil ondotik senidearen organoak emateko baimena ematen duten familiak

Batzuen etsipena, bertzeen itxaropena. Baina trasplanteek horixe dute. Pertsona baten heriotza beti da tristea eta mingarria, baina hil-

berriaren organoek itxaropena piztu dezakete organoaren premia larrian dagoen bertze batengan. Hurbilgotik ezagutuko dugu mundu hau.

G. PIKABEA

Elkartasun keinu haundia da organoak emateko prest egotea, are gehiago, bizitzeko ezinbertzekoa denean. «Keinu altruista bat da, gizakien arteko ekintza on haundiena». Halaxe adierazi digu Gabriel Txoperena Lesakako medikuak. Eta hortaz ongi daki berak, Donostiako Ospitaleko Organo Transplanteen koordinatzailea baita. 1996tik dago kargu horretan, baina 1988an ezagutu zuen mundu hori, orduan hasi baitzen Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) lanean. Urteek esperientzia eman diote, baina ba omen da oraindik gogorra egiten zaion zerbait: «hildakoaren familiari organoak eskatzea, gehienbat hildakoa gaztea bada». Orduan hasten da bere lana.

ZIU norbait hiltzen denean, Txoperenak berehala galdetzen dio familiari organoak emateko prest dagoen ala ez. Eta Hego Euskal Herrian erantzuna «gehienetan ona» izaten omen da. «Gutti goitibeheiti organoak ematea ukatu dute-

nak %10-13 izanen dira. Zenbait tokietan, %60k ezetz erraten dute». Datuak onak, beraz. Familiaren baiezkoa jasotzean, beharrezkoak diren azterketak egiten hasten dira, eta gero hartzaile egokienarengana bideratzen da organoa.

Urteekin emaille mota aldatu dela kontatu digu lesakarrak: «Hasieran, jende aunitz hiltzen zen trafikoko istripuz, eta emaille kopuruaren bi herena buruan golpe hartutakoa zen, trafikoko istripuan hila. Herena odol-isuri baten ondorioz hiltzen zen. Beraz, emailleak gazteak ziren». Gainera, emaillearen adin-muga 60-65 urte artekoa zen, eta zaharragoek ezin zuten eman.

Azken urteotan, aldiz, transplanteen emaitzak hobetzeaz gain, 80 urte artekoek eman ditzakete organoak. «Gaur egun, emaille bi herena buruko odol-jarioarekin hildakoa da, eta herena golpe eta istripuen ondorioz. Trafikoko istripuan hildakoa gutti dira». Hona adibidea: «Donostian, iaz 32 organo-emaille izan ziren, eta trafikoko istripuaren on-

dorioz, ez zen bakar bat ere hil». Izan ere, kaskoaren erabilera nahitaezkoa denetik eta puntukako karneta indarrean dagoenetik, «emaille gehienak adinekoak dira».

TRANSPLANTE MOTAK

Giltzurrunak, gibela, bihotza eta birrikak. Horiek dira gehien transplantatzen direnak. Baina eskaera haundiena giltzurrunak omen du. Gero gibelak, eta gero bihotzak eta birrikak. Pankrea, hertzeak, hezu-



rrak, ehunak, komeaketa bihotz-balbulak ere transplantatzen dira.

Larritasun maila ere diferentea da organoaren arabera. Giltzurruna falta duena, dialisiarekin ere bizi daiteke, «bizi-maila txarrarekin, baina bizi da», dio Txoperenak. Aitzitik, gibela, bihotza edo birrikak hondatuak dituztenek ez dute alternatibarik. «Medikuak urte bat edo biko bizi itxaropena ematean zerrendan sartzen dira. Epe jakin batean ez bazaie or-

ganorik ailegatzeko, hil egingen dira».

Organoa agertzeaz gain, bada kontuan hartu beharreko bertze zerbait ere: bateragarria eta tamaina egokikoa izatea. «Bihotzaren kasuan, erraterako, hartzaileak 1,60 metroko altuera eta 50 kilo baldin baditu eta emaillea 1,90 metrokoa eta 120 kilokoa bada, emaille haundi horren bihotza ez da hartzaile horren toraxean sartuko, nahiz eta odol-talde berdinekkoa izan».

OHIKO GALDEREI ERANTZUN DIE GABRIEL TXOPERENA MEDIKUAK

Zer egin organo-emaille izateko?

• Nor izan daiteke organo-emaille?

Edozein pertsona izan daiteke organo-emaille, hiltzen denean, bere organoak bertze bizitzara hobetzeko erabilteza nahi badu. Baina, denek ezin dute emaille izan, horretarako ezinbertzekoa baita ospitale bateko Zainketa Intentsiboetako Unitatean hiltzea, toki hauetan baitago organoak mantendu eta behar diren azterketak egiteko aukera. Emaille-txartela izan ala ez, beti behar da familiaren baimena.

• Zein organo eman daitezke?

Giltzurrunak, gibela, bihotza, pankrea, birrikak, hertzeak, ehunak, hezurak, korneak eta bihotz-balbulak.

• Bizirik ere izan al daiteke organo-emaille?

Bai, beti ere, legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira. Organo-emailleak 18 urtetik goiti eduki behar ditu, eta fisikoki eta psikikoki osasun onean egon. Legearen arabera, erabakia libre da eta inork behartu gabe hartutakoa dela ikusi behar da.

• Zer egin behar da emaille izateko?

Espainiar estatuan hiru bide daude: 902 300224ra deitu; eta ont@msps.es edo *Organizacion Nacional de Trasplantes, Sinesio Delgado 6-8, Pabellon 3, 28029 Madrid* helbidera idatzi.



ARGAZKIA: G. PIKABEA
Gabriel Txoperena lesakarra Donostiako Ospitaleko Organo Trasplanteetako koordinatzailea da.

LEHENTASUNA

Organo motaren araberak, lehentasuna ere aldatzen da. Herraldea eta ezaugarri klinikoak hartzen dira kontuan. Toki irizpidearen arabera, emateko dauden organoak lurralde horretan transplantatu behar dira, denborarekin ahalik eta guttien hondatzeko. Irizpide klinikoetan, ordea, emaile/hartzailearen bateragarritasuna eta gaitxoaren larritasun maila hartzen dira kontuan.

Halere, giltzurrunetan umeek dute lehentasuna, «umeengan dialisiak helduetan baino ondorio txarragoak dituelako», eta gibela, bihotza eta biriketant, lurralde kriterioaren gaineratik dagoen irizpide kliniko bat dago: larrialdi 0. «Gaixo bat larrialdi 0 kasuan badago, estatu osoan berak du lehentasuna. Hori Madriletik kudeatzen da, ONT Transplanteen Estatu Erakundetik». Ez badago larrialdi 0 kasurik, organoak lurralde irizpideak kontuan hartuz bideratzen dira. Eta ospitale horretan ez badago hartzailearik, hurbileko autonomia erkide-

EMAILEEN BILAKAERA

«Gaur egun, trafiko istripuan hildakoak gutti dira eta emaile gehienak adinekoak dira»

Gabriel TXOPERENA
Organo Transplanteetako koordinatzailea, Donostian.

goetara eramaten da. Hauetan behar ez bada, estatu mailan galdetuko da, eta hemen ere behar ez bada, Europan.

Bihotzaren kasuan, erraterako, hildakoari bihotza atera eta bizpahiru orduko tartea dute medikuek bertzeari paratzen. «Emailea Euskal Herrian baldin badago eta hartzailea Kanariar Uharterean, transplante hori ezin da egin, ez delako organoa garaiz ailegatu. Gehenez Cordobara bidaltzen ahal dugu».

TRANSPLANTEAK BIZIRIK

Bizirik dauden organoak ere trasplantatzen dira gaur egun. Giltzurrunak, gibela eta hezur-muina, adibidez. «Bi giltzurrun ditugunez, batekin bizitzen ahal gara», adierazi digu lesakarrak. Normalean, familiakoak dira

MARI JOSE MITXELENA, ERATSUNEN BIZI DEN SUNBILDARRA

«Loteria tokatu zitzaigun semearendako gibela agertu zenean»

Zortzi urteko neskato valentziar hilberriaren gibela ekarri zuen zorientasuna Mari Jose Mitxelena Eratsunen bizi den sunbildarraren bizitzara. Gibelaren premia larrian zegoen bere zazpi urteko semea, aitzinera egin ezinik, eta neskato harenak salbatu zuen. 16 urte beranduago, «pozik» dago Mitxelena, 23 urteko semea orain nola dagoen ikusita, baina aski gogoan du egindako borroka. Eta gogorra izanagatik, arazorik gabe kontatu digu, gaiak zenbat eta hedapen handiago izan, orduan eta hobeki izanen delakoan baitago, egoera berean daudenei laguntzeko.

«Arazo batekin jaio zen semea, barea haunditua zuela erraten zioten, eta bederatzik hilabeterekin gaizki jarri zen», azaldu digu Mitxelenak. Iruñera eraman eta gibeledu zirkosia diagnostikatu zioten, eta «ez zegoela deus egiterik» erran. Baina tratamenduan paratu eta horrela egon zen bolada batez. Medikuek proposatuta Madrilgo La Paz Ospitalera ere joan ziren. Eta han aurkitu zioten behazun-bidean buxadura edo eragozpenak zituela. Halaxe hasi ziren bi hilabetetik behin Madriler joaten. Semeak bederatzik hilabete zituenetik zazpi urte bete arte, Madriler joan-etorrian ibili ziren. Halere, harat joan aitzinetik, ate guztiak jo zituen familiak: Bartzelona Futbol Taldeko medikuarekin egon ziren, Hendaiko homeopata batekin ere bai... Ez zeuden geldirik egoteko, «semea ongi ateratzea zen kontua», dio amak.

Baina semeak «makurrera» egin zuen: «tratamenduak nahiz eta aitzinera egin, gaitotasuna garatuz joan zen». Eta erremedio bakarra transplantea zen. Lagun baten bidez, Madrilen gi-



Mari Jose Mitxelena.

beleko transplanteak egiten zituen mediku batekin egotea lortu zuen Mari Josek Iruñeko Klinika Unibertsitariotan. «Iruñean aukera izatea nahia go genuen, egunerokoarekin segitu ahal izateko». Eta horretan zeundela, «hagitz gaizki» jarri zen umea. «Uztailaren 5a zen eta ikaragarri hazi zen. Klinika Unibertsitariota joan eta egun batzuek odol-transfusioarekin egon zen mutikoa». Baina «uztailaren 13-14an semearendako gibela agertu zen, eta eskerrak, bertzela ez zuen irauten», dio Mitxelenak. Zortzi urteko neskato valentziarraren gibela garaiz ailegatu zen, eta dena ongi atera zen. Haurretan Nafarroan egindako gibelaren lehenbiziko transplantea izan zen.

23 urterekin bitzita normala darama orain mutilak. «Bitzita osoko tratamendua du, baina lanean ari da eta hagitz ongi dago». Eta semea horrela ikusita, etxeak gustura. «Pasatu dena mirari bat izan da. Ez dugu gehiago eskatzen», dio hunkituta: «loteria tokatu zitzaigun».

emaileak. Halere, hil batetik kentzearen aldekoa da, «are gehiago, hil guzietatik ez zaiela eskatzen kontuan hartuz».

Gibela ere bizirik transplanta daiteke: «gehienean umeetan egiten da; ume emaile bat agertzen ez bada, gurasoaren gibela zati bat paratzen da».

Eta hezur-muina ere transplanteatzen da bizirik. «Gaixok leuzemia duenean, kimioterapia dosi altuak behar ditu, eta

muinik gabe geldi daiteke. Irtenbidea transplante baldin bada, familian bateragarria den baten bat badagoen begiratzen da». Baina ba omen da hezur-muinen emaileekin osatutako zerrenda ere. «Jende hori hagitz kontzientziatua dago», aipatu digu Txoperenak.

Kontzientziatua egon eta borondatea izatea, ezinbertzeak izan ere, legez ezin da organorik erosi, eta norbaitek emai-

le izan nahi badu, borondatez egin behar du. Zenbait tokitan, ordea, ordainduta denak balio du. Txinan transplanteetan erabiltzen diren organoen %65 heriotza zigorrekin kondenatutako presoak dira. Organo trafikoa handia da, ordainduta bertzela egiten ez den transplantea egiten baita. Baina hemen ez. Hemen borondate kontua da. Emailerik gabe, ez baitago hartzailearik.



Nire txanda
Ruben GARATE

Laguntzea gostatzen delako

U dan etxean hartzen diren haurren eta adopzioen gaia nahiko bitxia suertatzen zait. Horrenbeste gosta behar al luke? Eta gosta diodanean, denboraz eta diruaz ari naiz; bigarrenez batez ere, haurra erosten edo errentan hartzen ari zarela ematen duelako, eta hori ikaragarria da. Papeleo eta buelta aunitz eman behar dira, bizitzaren gorabeheren ondorioz familiarik gabe gelditu den edo, bertzerik gabe, hilabete pare batez bizi-kalitate hobea nahi duen haurra laguntzeko. Badakit batek baino gehiagok pertsona tiki hauei lagunduko liekeela halako burokrasiarik ez balego, baina esfortzu handia suposatzen du, edo ezinezkoa gertatzen da. Batek baino gehiagok uda emanen luke haur horrekin baina lehenik «eman dirua». Afera zaila da eta hor dagoenak jakinen du nola egin, baina garbi dago kanpotik ezberdin ikusten dela.

Papeleo eta buelta aunitz eman behar dira hilabete pare batez bizi-kalitate hobea nahi duen haurra laguntzeko

Ezpala

Aitor AROTZENA

Baigorri eta Senperetik Iruñera

Baigorri eta Senperen bezala, euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatuko dugu larunbatean Iruñean. Eskubide berdintasuna: ez gehiago, ez guttiago. Gaztelaniak duen estatus ofiziala euskarari ere aitortzea. Euskarazko komunikabideek gazteleraizkoak dituzten erraztasun (eta dirulaguntza) berdinak izatea. Tuteran gazteleraiz (edo ingelesez) bezala, euskaraz ere ikasi ahal izatea.

Nabarmentzekoak



Martin APEZETXEA
Oronozko arrantzalea

Maiatzaren 1ean, izokin denboraldia ireki zen goiz berean ateratu zuten *Lehenbizikoa* Bidasoatik 51 urteko arrantzale oronoztarak. 1.500 eurotan saldu zuten lehen ale hori.



Olatz GARMENDIA
Donamariako monja

50 urte bete dituzte karmeldarrek Donamariako komentuan. Aste-buru honetan egingen dute ospakizuna, gaur egun Ama Nagusia den azpeitiarrak aipatu digunez.



Iera AGIRRE
Leitzako pilotaria

Oiartzungo Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazi du bigarren bezala palista leitzarrak. 13 urterekin hasi zen palan eta geroztik dozenaren bat txapel ba omen ditu irabaziak.

Atzera begira →
1998.05.21 /
TTIPI-TTAPA 230. zbk



Postariak mobilizazioetan duela hamabi urte

Joan den urtean Correosek baserrietako postontziak elkartu nahi zituela eta zenbait mobilizazio egin zituzten inguru hauetako udalek. 1998an ere arazo berdintsua zuten eta Gobernuak prestatu zuen Posta Plan berriaren aurka mobilizazioak burutu zituzten postariak apirilean. Javier Maritxalar Beran postari zen lesakarrak zioenez, «baserrira karta bat eramatea ez da errentagarria egundaino, baina jende guziak bere kartak egunero hartzeko duen eskubidearen alde gaude, errentagarriak ez diren zerbitzuak errentagarriekin konpentsatuz».



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakalariak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leizta15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Muxu bana zimeldu ez gaitezen

Ainara MAIA URROTZ

Maiteminez. Elurpeko maitasunezko hazi honek maitasuna behar du loratzeko, eta aurren ere atzerrian malko zuri batek irrist egin dit masailean behera maite galdu hura oroitzean. Txekiako tradizioa omen da maiatzaren batean gereziondoaren azpian maitaleak maitatuari muxu ematea zimel ez dadin, eta lore maitatu hau ximel ez dadin, muxu bana igortzen dizuet aldizkari honetako irakurle eta langile guztioi, baita EGUNKARIAko langile ohi guztiei nahiz euskaraz irakurtzen ez duten guztiei ere, nik ere ez bainuke zimeldu nahi, eta gaur maite dudaren muxuak jaso nahi ditudalako. Nire bihotz osoz maite dut, eta bakar-bakarrik egon nahi dut, bakarrik ene maitearekin udaberria itzali baino lehen elkarrekin sua egiteko, elkarrekin bizitza berri batera jauzi egiteko.

Jungo naiz oiartzueraz esan dit ametsetan, eta

bat-batean iratzarri naiz. Leihoaren kristalean kaxkax, txorrotxioka alai txoriak egun euritsuan ni alaitu nahian dabilta etenik gabe. Leihoa zabaldu eta kafea prestatu dut gereziondoaren babesean bart (ez) emandako muxua ezpainetako kalenturan dudalarik.

Zure zain euskara batuaz erantzun diot bihotz-begiak zabal-zabalik. Ene bihotza bixi-bixi dabil tau-paka, nekaturik egon arren, horixe baitugu bizitza, bihotza, heriotza, beroa eta hotza, eta horretan bizirautea. Zorioneko gara gure zoritxarrean, eta udaberriak beti ekarriko dizkigu aukera berriak, ene maite urrun hori. Mugako ainara hegalaria eta aske hau udaren iragarle fina izango da laster.

Bakarrik. Haren ondoan hegan egiteko zero urdinean, txistuka, kantuka, mutu eta dantzari haizean. Ez dut bizi nahi hura gabe! oihukatzen dut basamortuan. Itoko al naiz egarriz behingoagatik, hartara istripu baten antza izango du nire heriotzak.

Ez dut bizi nahi hura gabe! oihukatzen dut irla txiki eta galdu batean. Hilko al naiz gosez behingoagatik. Irakurriko al du hau hark?

Udaberri honek BERRIA dakar gaur ere, eta BIZI naizen egun honetan eskerrak ematen dut bizi naitzelako, zuei guztioi, irakurle eta langile guztioi, muxu bana emateko. Zimel ez gaitezen.

«Txekiako tradizioa omen da maiatzaren batean gereziondoaren azpian maitaleak maitatuari muxu ematea zimel ez dadin, eta lore maitatu hau ximel ez dadin, muxu bana igortzen dizuet aldizkari honetako irakurle eta langile guztioi»

Turismo gezurtia?

Juainas PAUL ARZAK

Lorpen ekonomikoek ez dute dena zurrizten». Horrela, orokorrean esana, ziur naiz nirekin bat zatozela. Eztabaida, behar bada, mugak jartzerakoan dator: Noraino bai? Zer ez? Jokoa zer dago? Merez du? Galdera labainkorra, azken finean denok ikuspuntu desberdina izanen baitugu. Zer saldu daiteke? Zugarramurdira joko dut. Kanpotik ari naiz eta ez dut nirea egi bakartzat. Zalantzak plazaratu nahi ditut.

Duela ez dakit zenbat egun edo aste irakurri nion Sanchez Ostiz jaunari iritzi artikulua bat... Oroitzen naizenagatik, Nafarroako Gobernuko Turismo sailaren burua zuen helburu, bidenabar Zugarramurdiko museoarekin sartzan bazen ere. Gogorregia iruditu zitzaidala dut gogoan. Museoa sortu zutenean niri ere beldurra ematen zidalako zer eginen zuten jakiteak, ziur aski. Gero, tira, torturari eman dioten gehiegizko tokiarena kenduta ongi dagoe la iritzi dut. Oreka mantentzea zaila da, ordea.

Berriki, Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuaren turismo sariaren banaketarena egin dute.

Ez nintzen bertan egon. Hala ere, pare bat gauza esanen ditut.

1610eko gehiegikeri galanta izan zela frogatutzat eman daiteke. Jazarri zuten sorginkeri modukorik ez zen izan. Pairatu zutenak euskaldunak ziren. Gainera etorri zitzairen eromen hark epaiketara, zigorrera, sutara eta heriotzara eramane zituen. 400 urte pasa badira ere, gure begirune osoa merezi dutelakoan nago... Zer irudituko zitzairen ospakizuna? Jakiena eta bestarena, ez dakit. Erdararen nagusigoa, ulertezina. Are makurrago, nire ustez, jazarpen motibotzat ospatzen ez zituzten akelarreak, erdarako avelarretik euskal akelarreak antzeztea egia izan balira bezala. Iraingarria. Arduratu beharko gineteke gezurrak deuseztatzen, ez salgarri turistiko topikoa bihurtzen.

«400 urte pasa diren arren, gure begirune osoa merezi dutelakoan nago... Zer irudituko zitzairen ospakizuna? Jakiena eta bestarena, ez dakit. Erdararen nagusigoa, ulertezina»

«Iraingarria. Arduratu beharko gineteke gezurrak deuseztatzen, ez salgarri turistiko topikoa bihurtzen»

Irakurleak mintzo

Hausnarketa
beharrezkoaArcelorMittal
Lesaka-Legasako LAB

Joan zen apirilaren 22a, egun ilun eta euritsua izan zen, gure eskualdearen etorkizuna bezain iluna. Egun horretan ospatu zen Bera, Arantza, eta Etxalarko Udalek deituriko lanuzte mobilizazio eguna, deialdia hori egiteko arrazoiak ezagunak eta sakonak ziren, zeren hori egiaztatze gure lan-tengien egoera, langabetu kopurua, baserri munduak bizi duen egoera negargarria eta udalen diru eskasia ikus-tea bertzerik ez dago. Arrazoi horiek hildaren 22a baino lenenagoko egunetan luzaro azaldu eta eztabaidatu ziren.

Egoera honek erantzun sakona eskatzen zuen eta ahalegin guziaz norabide horretara bideratzea aitzakiak bazter batera utziz. Emaitzak egun horretan eman ziren kontrako baldintza guziaz kontutan edukita, arre-ta deituzeko modukoak izan ziren. Zerbait gertatzen ari da gizartearen gero eta zati haundiagoa egoeraren larriaz kontratzen joateko.

Aunitzez ere eragin-garriagoa izan zitekeen, hasiera batean kontsent-su bidez deialdia babestu zutenak atzera egin ez bazuten, eta zenbait kasutan kontra-ko kanpaina egin ez bazuten. Ezin dugu inolara ere ulertu nola batzuke uste bezain ongi ater-

ez delako poztu daitezkeen, zeren jarrera horrek denok dakigunari bakarrik ematen dio indarra. Kontua ez da gure artean errudunak bilatzea, ez dugu pilota inoren teiltuan jarri nahi, denok izan behar dugu arduratsuak. Siglen protagonismoa bazter batera utzi eta guziontzako onuragarria dena bilatu behar dugu. Eskualdearen etorkizunak denok batera eta norabide berean joatea eskatzen digu, horretarako aldian-aldiko konponezina bazterrean utzi. Gertatzen ari denaren inguruan guztiok atera behar ditugu ondorioak eta gisa honetako egoerak berriro gerta ez daitezten ahalegindu behar dugu.

Banaketaren ondorioz, beuren plangintza politiko eta ekonomikoak aurrera aterata nahi dutenak ateratzen dira irabazle, gure eskualdeko jende gehiengoaren beharren kalterako. Gaur egun gaizki gaude (ez da une bateko kontua bakarrik) baina bide honetan jarraituz gero, gure seme-alabak eta ondorengoak ez dute etorkizunik izanen, eta gure helburua Bortzirietan bizi eta baldintza duinetan lan egitea da.

Gazte Eguna,
izan ala ez izan

Lesakako Gazte Asanblada

Apirilaren 17an, Lesakako Gazte Eguna ospatu genuen. Baina egun honek ere izan zuen bere alde itsusia.



Bota bertsoa

Estitxu AROZENA (Lesaka) • Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Emakumeak 14 zortzi milako borrokan

Oraindik dugu gogoan Martin Zabaletaren garaia Munduko gailur altuenera ikurrina eraman nahia orain marketin kanpaina handia dirua tartean da ia Zortzimilako paisaia mediatikoa da gaia Anapurnatik Shisha Panghmara helikopteroz bidaia espektakulu eta gutzi bihurtu da Himalaia.

Pasaban eta Miss Ohk paratu dute azken suspentsea Historirako emakume nor gurea edo bertzea Zortzimilako hamalau mendi lehen bait lehen igotzea hobe urrea lortzea ez zilar ta ez brontzea mendian ez da garrantzitsua lehendabiziko heltzea baizik bertara doazen denak osasuntsu bueltatzea.

Gazte Egunaren antolakuntzan, Udalak jarritako trabez ari gara.

Urtero bezala, urri- an, Udalak 2010eko egitaraua eta aurrekontua eskatu zizkigun. Azarotan, ekitaldien egitaraua eta beharrezko aurrekontua aurkeztu genituen. Eskaera honetaz gain, martxoan, Gazte Egunerako beharrezkoak ziren baliabideak eskatu genituen: eszenatokia, Udalaren soinu ekipoa, aparkalekua erabiltzeko baimena...

Apirilaren 17a baino bi aste lehenago, Udalaren ezezkoa jaso genuen, ez omen ginela-ko existitzen. Erantzunak, harrিতa utzi genituen, ez genuelako ulertzen nola urrian aurrekontua eta egitaraua eskatzeko existitzen zen talde bat, apirilean ez existitzea. Erantzun hau jaso bezala, beraiekin solastera joan ginen. Bertan, erran ziguten,

NIFaren kontuagatik, hau da, ofizialki erregistratuak ez gaudelako ukatu zizkigutela baliabideak eta aurrekontua. Honek ere ezustean harrapatu gintuen, izan ere, Gazte Asanblada inoiz ez da ofizialki erregistratua egon eta urte aunitzetan antolatu du Gazte Eguna, Udalak emandako baliabide eta baimenekin. Kontuak kontu, akordio moduko batera iritsi ginen, Udalak aurrekontua ukatzen zigun, baina, eszenatokia eta baliabideak utzi-ko zizkigun, nahiz eta, eszenatokia altxatzeko langilerik ez bidali.

Kontua pixka bat zuzendu zela pentsatzen genuenean, berriro ere dena ukatu zitzaigun. Bigarren ezezko honen ondotik, Onin Udal Taldeak, baliabideentzako eskaera sartu zuen eta onartu egin zioten. Udalak, eszenatokia, aparkalekua... utziko zizki-

gun, baina ez zuen langilerik bidaliko. Langilerik gabe, herriko gazteek altxatu behar izan genuen eszenatokia, horrek suposatzen duen arriskuarekin. Zailtasun hauetaz gain, ugariak izan dira jarri dizkiguteren trabak. (...)

Oztopoak- oztopo, aurtengoan inoiz baino gehiago erakutsi dugu, herriko gazteak elkarlanean arituta gauza haundik lortzeko gai garela, horregatik zoriandu eta eskertu nahi dugu, aurtengo Gazte Eguna, antolatzen lagundu duen pertsona oro, bereziki, herriko gazteei, Onin Udal Taldeari, eszenatokia muntatzen lagundu digutenei, Arantza eta Donamariko Gazte Asanbladei, lagundu diguten ostaruei, albinteei, Arrano Elkarteari eta bertako sukaldariei, garrarioan lagundu diguten enpresei... ESKERRIK ASKO DENEI.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Nafarroan, adinekoen %75, 2.000 biztanle baino guttiago dituzten herrietan bizi dira, gizarte zerbitzurik ez duten eta sakabana-tuak dauden tokietan. Etxez etxeko gizarte-laguntza sistemak aldaketak behar ditu, eta prestutasunaren denbora eta maiztasuna hobetu behar dira. Gainera, eremu honetan gure adinekoak zainduko dituen norbait aurkitzea zaila da».

Mariado ITURRALDE
Donamariako abeltzaina
D. NOTICIAS, 2010.05.03

«Ezinbesteko partida zen eta kanporaketa bat bezala planteatu dut. Garaipenarekin oso pozik nago, gauzak ongi egin ditudalako. Hasieratik sartu naiz partidaren. Asierren kontrako partidarekin konparatuz, desberdina izan da. Orduan atzetik jarri nintzen markagailuan (...) Abelek ez du bere eguna izan (...) Erritmoa jarri eta tantoak irabaztea da nire jokoak».

Oinatz BENGOTXEA
Leitzako pilotaria
D. VASCO, 2010.05.03

11 galdera labur

Zer da Turismo Bulegoan lan egiteko ezinbertzean behar dena?

Sara ezagutu behar da. Nik ez dut dena ezagutzen baina... Eta hizkuntzak ere bai: euskara, frantsesa, espainola –ez dakit sobera ongi baina ikasiko dut–, ingelesa...

Nolakoak dira Sarako Turismo Bulegotik pasatzen diren turistak?

Besta delarik euskaldunak badira, bakantze denboretan frantsesak ere etortzen dira...

Zer bilatzen dute turistek?

Ibilaldiak egin, eta Larrun, leizeak eta herria ezagutu nahi dituzte.

Zeinen bisita hartuko zenuke gustura Turismo Bulegoan?

Ez dakit...

Denbora librean zer egiten duzu?

Gaztetxean naiz eta Gaupasa prestatzen aritu gira. Eta Zazpiak Bat Taldean dantzatzen egiten dut.

Asteburuetakoz zure plana zein izaten da?

Besta. Ez asteburu guzietan bainan...

Nola ikusten dituzu Sarako gazteak?

Ez dira denak mugitzen, baina batzuk bai.

Laborantza hurbiletik ezagututa, gustatuko al litzaizuke hortik bizitzea?

Nere gurasoak laborariak dira eta badakit ez dela errexa, beraz...

Saran, frantsesa euskararen gainetik dagoela iruditzen al zaizu?

Gehiago erabiltzen da frantsesa baina aldatzen ari da pixka bat. Nere adinekoek hobeki dakite frantsesa baina ikastola haunditzen ari da eta nere ustez horrekin euskara indartzen ari da.

Zer egin nahiko zenuke etorkizunean?

Etxe bat ukan eta Saran bizi, bainan ez da batere errexa orain dena kario baita.

Amets bat?

Etxe zahar bat ukaitea Saran.



Luxi ANDIAZABAL → Sarako gaztea

KULTURA

MUSIKA → KONZERTUAK

Bi multzotan eskainiko dituzte kontzertuak institutuetaiko ikasleek

Sei institutuetaiko ikasleek parte hartuko dute emanaldietan, horietatik lau eskualdekoak

TTIPI-TTAPA

Kontzertuak eskaintzeko elkartuko dira institutuetaiko ikasleak aurtengo ere. Baina aldi honetako ez da bertze urtetakoaren berdina izanen, institutuak bi multzotan banatuta eskainiko baituzte kontzertuak: alde batetik, **Lekaroz, Doneztebeko Mendaur eta Leitzako Amazabal** institutuetaiko ikasleak bilduko dira, eta bertzetik **Berako Toki Ona**, Mendillorri eta Altsasuko ikasleak. Sei instituturen ar-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urte Beran egindako topaketan institutuetaiko ikasleak.

teko ekimena izaki, seiak elkarteak luzeragijoko lukeelakoan erabaki da aurtengo bitan banatzea.

LEHEN MULTZOA

Bera, Altsasu eta Men-

dillorrikoen saioak maiatzaren 17an hasiko dira. Egun horretan Berako frontoian egingen da emanaldia, 17:00etan. Bigarrena Altsasuko kiroldegian egingen dute maiatzaren 28an,

17:00etan; eta hirugarrena eta azkena ekainaren 4an Uharteko frontoian, hau ere 17:00etan.

Hiru institutuak eskualde diferentetakoak izanik, aurtengo berrikun-

tza gisa, talde bakoitzak bere inguruko dantza bat eskainiko du bertzeen aitzinean. Berako Toki-Onakoek, erraterako, inude eta artzainena aukeratu dute. Horrekin batera, publikoarekin batera, txalo-polka egiteko asmoa ere badute.

BIGARREN MULTZOA

Doneztebe, Leitza eta Lekarozko institutuetaiko ikasleek saioak bat bertzearen ondoren egingen dira: Doneztebeko emanaldia frontoian izanen da maiatzaren 26an; Leitzako ere frontoian egingen da, maiatzaren 27an, eta Lekarozko kiroldegian, maiatzaren 28an. Hiru kasuetan 17:00etan hasiko dira kontzertuak.

elika
Dietetika eta elikadura

- Ahulkerantz dietetika eta nutricionala
- Dieta personalizatua
- Gintza buruzkoaren azterketa
- Oskara heziketa

Itxura osasuntsua
Zunberdian egiten diren emaketa
Tikadun erretze eta artoak
Menturazko gaitzak

Iciar Andueza Larra
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel. 948 627 614
Behoko Plaza, 10 - LESAKA

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

BELARRA
JATETXEA

Arantzeta - DONEZTEBE
948 456 306
www.belarrajateketa.com

BERTSOLARITZA → NAFARROA

Bertsopaper Lehiaketako Bortzirietako sariak banatu dira

Gainerako eskualdetako sariak laster banatuko dira

TTIPI-TTAPA

*Bertsolaritza Hezkun-
da Arautuan* proiektua-
ren barruan egiten den
Bertsopaper Lehiaketa
aitzineria doa. Nafarroa-
ko bortz eskualdetan egi-
ten da sari banaketa eta
bakoitzeko lehen saritu-
en artean erabakitzen da
zeintzuk diren Nafarroa-
ko irabazle.

Bortzirietako sariak banatzen lehena. Apirilaren 30ean 133 lanen artean aukeratuak zein izan diren jakinarazi zen Berako Kultur Etxean.

Bortzirietan, **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoetan**, lehenbiziko saria Berako Rikardo Barojako Oier Larretxeak eraman zuen; eta Enaitz Telletxea (Igantzikako eskola), Katti Irastorza eta Ainara Pacheco (Rikardo Baroja), Aroa Martin eta Gaizka Zandio (Berako Labiaga Ikastola) eta Ane Telletxea eta Kattalin Odriozolarentzat (Lesakako Tantirumairu Ikastola) izan ziren aipamenak.

5. eta 6. mailakoetan lehen saria, berriz, Paulo Ramosentzat (Tantirumairu) izan zen eta Julen Telletxea (Etxalarko Landagain eskola), Mikel Castillo (Labiaga), Ane Arburua (Rikardo



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bortzirietako sarituak apirilaren 30ean Beran egindako ekitaldian.

Baroja), Asier Oses (Labiaga), Ganix Arruti (Tantirumairu), Iker Pikabea (Lesakako Irain eskola) eta Urki Txoperenarentzat (Tantirumairu) izan ziren.

DBHko 1. eta 2. mailakoetan kategorian, Xabat Matxikote atera zen garaile (Berako Toki Ona); eta aipamenak Ainhoa Larretxea (Toki Ona) eta Maddalen Lopezentzat (Labiaga) izan ziren. **DBH 3. eta 4. mailakoetan**, azkenik, Ainara Etxabidek (Toki Ona) eraman zuen lehen saria eta aipamena

Mikel Teiletxearentzat (Toki Ona) izan zen.

BAZTAN-MALERREKAKO SARIAK

Baztan-Malerrekako sari banaketa maiatzaren 12an, asteazken honetan, egitekoa zen, 10:30ean Elizondoko kiroldegian. Baztan ikastola, San Francisco Javier ikastetxea, Irurita, Erratzu eta Gartzaingo eskolak, Lekaroz institutua, Doneztebeko San Migel ikastetxea eta Mendaur ikastetxeak ikasleak egotekoak izan diren ekitaldian.

LEITZALDEKO SARI BANAKETA

Mendebaldeko sari banaketa, berriz, maiatzaren 26an izanen da Leitzako zinema aretoan. Sariaketa horretan, bertzeak bertze, Leitzako Erleta eskola eta Amazabal institutua, Goizuetako Xalto eta Aresoko ikastetxeak ikasleak hartu dute parte. Hauekin batera, Lekunberriko Ibarberri, Larraintzarreko Irurita Gotzaia eta Beteluko Araxes ikastetxeak parte hartu dute Mendebaldeko sariaketa.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan).
Eskaintzaren azken eguna: maiatzak 31

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA,
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA
25€ pertsonako astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan
28€ pertsonako larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan.
Eskaintzaren azken eguna: maiatzak 31

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN
BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza
edo promozioei gehitu

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 · www.balnearioelgorriaga.com

BERA

KIROLA → NAFARROAKO KIROL JOLASAK

Nafarroako Kirol Jolasen barne, mendi ibilaldietako finala egingen da igandean

Orientazio proban, bi herritar gailendu dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kirol Jolasen barne, Nafarroako Mendi Federaziok hainbat proba antolatzen ditu gaztetxoentzat. Eta horietako bat, mendi ibilaldietako finala, egingen da herrian igande honetan.

Larun Mendik antolatu du eta 10 eta 17 urteko neska-mutikoei har dezakete parte. Ibardinetik abiatuta, Landagaita eta Larunetik pasatuz, berriz herrira bueltatuko dira, 13 kikometroko ibilbidea egindakoan. Ttikienek, aldiz, 8 kilometroko ibilbidea izanen dute, Landagaitatik herrira jautsiko baitira. Helmugaraztean, jan-edanaz gain, jokoak izanen dira.

Kirol Jolasen barreran, bertalde, mendiko orientazio proben finalak

egin ziren apirilaren 18an Altsasun. Mapa batekin, baliza edo mugarriz betetako ibilbidea osatu behar izan zuten, mugarririk horietako bakoitzean eurerekin eraman zuten papelean, zegokion laukitxoan marka eginez. Jubenil mailako nesken kategorian, Naia Esnaola eta Itxaro Errandonea herritarrek txapeldun eta azpitxapeldun izan ziren.

Merkatarien kanpaina

Atera zukua Larun Haizperilelopean kanpaina berria abiatu dute merkatariek. Hilaren 23ra arte erosten dutenen artean, 50 euroko 50 bonu eta 200 euroko bertze bat banatuko dira. Hilaren 24an egingen da zozketa.

Herri kirol taldearen aldeko bazkaria

Herri Kirol Taldearen alde bertso bazkaria egingen da hilaren 29an Ehi-za eta Arrantza Elkartearen Zubeldia, Irazu eta Ze-

laietarekin. Txartelak eskuratzeko: Errekalde, Katakua edo 609 808756an.



ARGAZKIA: FERMIN ESNAOLA
Itxaro Errandonea eta Naia Esnaola podiumean.



ARGAZKIA: ROSA ERRANDONEA

Beasaingo Musika Eskolarekin topaketa

Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren 30. urteurrena dela eta, ekitaldi aunitz izanen dira maiatzean. Eta horietako bat maiatzaren 2an izan zen, Beasaingo Musika Eskolako bandaren eta Berako musika bandaren arteko topaketa egin baitzen. Kalejiraren ondotik, kontzertua eskaini zuten Kultur Etxean. Aipatzekoa da ekainaren 17ra arte, 30 urteak biltzen dituen argazki erakusketa ikusgai egonen dela musika eskolan, astegunez 16:30etik 19:00etara.



ARGAZKIA: LIBURUTEGIA

Liburuaren Egunean gaztetxoak gustura

4-8 urte bitarteko neska-mutikoei ederki gozatu zuten apirilaren 29an, Liburuaren Nazioarteko Egunean harira Liburutegian egindako ekitaldian. Inguma taldeak *Bidaian* ikuskizuna eskaini zuen, eta erran digutenez, «dibertigarria izan zen».

Gazte Eguna larunbatean

Herriko gazteen arteko harremana hobetu, euskara bultzatu eta Gaztetxe autogestionatua jendeari hurbiltzeko helburuarekin, Gazte Eguna antolatu du Kaxerna Gaztetxeak larunbaterako, maiatzak 15.

10:00etan hasiko dute eguna Gaztetxean. Aurkezpenen ondotik, talde bakoitza hirutan banatuko da: batzuk murala egin beharko dute; bertzeek bazkaria

–aurten librea– eta hirugarren multzoak bortz minutuko bideo bat prestatu beharko du. 13:30ean grabatutako bideo horien emanaldia egingen da eta gero bazkaria. 16:00 aldera jokoak egitera jautsiko dira herrira kalejiran, eta furgoneta batekin poteo bat eginez, jokoak herrian barna egingen dira. Bukatzeko, 19:30ean luntxa eta kontzertua izanen dira Gaztetxean.

PAUSOKA ONETAKOAK
IRENI BERRIAL
• Gizon, emakume, gazte eta haurrentzako onetakoak
• Osagarriak eta bitxiak
• Onetakoaren konpainia
Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 417

JAKONE-GOZOTEKIA
Aldean 19 • BERA • 94803078

GIZARTEA → IGOR PORTU, MATTIN SARASOLA ETA MIKEL SAN SEBASTIAN EPAITUAK ENTZUTEGI NAZIONALEAN

Epaiketa sententzia zain eta herrian mobilizazioak egin dira

Barajasko T4ko atentatuan parte hartu izana egozten zaie, baina ustezko aitorten horiek egin zituztenean torturak salatu zituzten

Aitor AROTZENA

Joan den astean epaitu zituzten Madrilan Igor Portu, Mattin Sarasola eta Mikel San Sebastian herritarrak. Fiskalak Barajasko T4ko atentatuan parte hartu izana egozten badie ere, hirurek lehen egunetik uko egin zioten deklaratzeari, Espainiako Auzitegi Nazionalak torturak ahalbidetzen dituela salatuz. «Ez dut auzitegi faxista hau ontzat ematen, eta ez dut deklaratuko», erran zion epaimahari Mattin Sarasolak. Igor Portuk epaiketa gela azaldu beharko lituzkeenak tortura salaketan erran zituela adierazita egin zion uko deklaratzeari. Mikel San Sebastianek torturak ahalbidetzea leporatu zion Auzitegi Nazionalari. Lau eguneko epaiketaren ondotik, sententziaren zain gelditu da. Epaiketa zela eta, joan



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Tantirudantza arrakastatsua aurten ere

Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako Tantirudantza jaialdia giro ederrean ospatu zen apirilaren 25ean. Eguraldi eguzkitsua eta goxoa lagun, goizean, ongi-etorria eta hameketakoaren ondotik, Urretxuko Lurra, Getariko Gure Txeru eta Faltzesko Makaia taldeetako dantzari tikiak, herriko Tantirumairukoekin batera, karrikaz-karrika ibili ziren, Lesakako hainbat txokotan beraien dantzak eskainiz. Herriko dantzarik tipikoena, Zubigainekoa, eskaini zioten herriko dantzariak bisitariei eta gero plazan bildu ziren talde guztiak, beraien emanaldia eskaintzera. Bazkalondoa, Patxin eta Potxin pailazoek emanaldia eskaini zuten plazan.

den astean hainbat mobilizazio egin ziren herrian, batzarra astelehenean, elkarretaratzea asteazkenean eta larunbatean manifestazioa.

TORTURA SALAKETA IRUNEAN

Bertze aldetik, apirilaren 30ean Iruñean egindako prentsurre-

koan, Bortzirietako zenbait kargu publikok eta herritarrek oroitarazi zuten Portuk eta Sarasolak torturatuak izan zirela salatu zutela 2008ko urtarrilean ustezko aitorten egin zituztenean. Josu Irazoki Berako alkateak salatu zuen Auzitegi Nazionala ez dela zilegizko epaitegia.

Zaine Rekondo lesakarrak gogorarazi zuen Joxe Arregiren heriotzatik gaurdaino milaka herritar torturatuak izan direla, «tortura ez baita nahigabea gutti batzuekin gertatzen den zer bait, Euskal Herrian sistematikoa da, maizegi izaten dugun egia gordina».

FLASH

Nafarroa Oinez Mus txapelketa

Nafarroa Oinez 2010 dela eta, mus txapelketa antolatu da Nafarroa osoan. Atxaspi ostatuan jokatu da kanporaketa maiatzaren 14an, 22:30ean. Lehenbiziko hiru bikoteek sari politak jasoko dituzte eta irabazleek gainera Iruñean jokatu den finalera joateko aukera izanen dute. Sarreraren prezioa 8 eurokoa izanen da, horietatik 5 euro Nafarroa Oinezentzat eta gainerakoa bertan banatuko diren sarietarako.

Beñat Oronoz trinketean

Frontoian bikain aritzen dela jakina da, baina trinketeko lehen esperientzia ere ederki moldatu da Beñat Oronoz pilotaria. GRAVN txapelketan, jubeni mailako buruz buruko txapelketan Nafarroa ordezkatu du eta finalera ailegatu zen, Araba eta Gipuzkoako pilotariak kanporatu ondotik. Maiatzaren 1ean Mendillorri jokaturako finalean, aldiz, 34-35 galdu zuen Bizkaiko ordezkariarekin.

Irakurketa saioak ikastolan

Ikasleen irakurketarako motibazioa eragiteko saioak antolatu ditu aurten ere Tantirumairu ikastolak. Apirilaren 25ean, 15:00etan pertsona helduek ipuinak leituko dituzte.

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabiueak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

GOZZ-AIDE
LAVANDEUEN
0948 637 127 • LESAKA

IRU BIDE
Energia - Auzia
Barajasko, 31 • Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABAL
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

ETXALAR

ERREPIDEAK → 2009-2016KO PLAN ZUZENTZAILEA

Errepideetako Plan Zuzentzaileak ez ditu Udalaren alegazioak kontuan hartu

Bi bide hobetzeko eskatua zuen

Irune eta Itsaso

2009-2016ko Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileari, herritik pasatzen diren bi errepide moldatzeko egindako bi alegazioak ez direla kontuan hartu salatu du Udalak.

Alde batetik, Etxalar-ko Benta eta Lizaieta lotzen dituen errepide moldatzea eskatu zuen, bereziki herria eta Lizaietako gainaren arteko zatia, «puntu zehatzetan igarotzeko arazo handiak daudelako, guttieneko baldintzak betetzen ez dituzten zenbait bihurgunetan, batez ere». Arriskua guttitzeko trazatua moldatu beharko litzatekeela uste du Udalak, bihurgune horiek zabalduz eta zapaltzeko moduko kunetak eginez.

Nafarroako Errepide Sarean ageri ere ez den

Zugarramurdirako bidea hobetzeko proposamena ere egin zuen Udalak, baina ez da kontuan hartu. Udalaren irudiko, ordea, lehenbailehen egin behar dira lanak. Gainera, etorkizunean, Bizikletaren Plan Zuzentzailean ageri da bide hau.

Usoa kooperatibako Batzar Orokorra

Apirilaren 24an izan zen Usoa Nekazari Kooperatibaren urteko Batzar Orokorra eta Arantxa Zubieta lehendakariak erran digunez, pentsuen salmentak guttina-ka beheiti egin du. Halere, bertze produktuak gehiago saldu omen dira. Gasolindegia izan da kooperatiba aitzinera ateratzeko gehien lagundu duena, guztira 550.000 litro gasolio saldu baitira. Bertzalde, junta berri- zeko bozketan egin ond- otik boto gehien hartu zizutenak zazpi hauek izan ziren: Venancio Eliza- goien, Jabier Iparragirre,



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Denda berria ireki dute: Oriane

Denda berria ireki dute lehengo farmazia zegoen lekuan: Oriane. Jostailu ekologikoak, eskuz margotutako kamisetak, eskuz egindako oinetako ekologikoak, modako jantziak, pijamak, apaingarriak... saltzen dituzte. Yasint nagusiak erran digunez, bere nahia herritarrek kanpora joan gabe bertan erosteko aukera izatea da. Hilaren 1ean inauguratu zuen eta gustura agertu zen, jendea poliki-poliki hurbildu zelako.

Jose Mari Danboriena, Juan Antonio Berrueta, Gerardo Danboriena, M^a Dolores Babaze, Maite Indaburu. Horietik sei izanen dira juntan sartuko direnak aterako diren hauek ordezkatzuz: Gerardo Danboriena, Jose Mari Olagarai, Xalba Ansalas, Josetxo Ariztegi, Jose Mari Pikabea eta Jose Angel Ariztegi.

Lurriztiederrako bestak

Maiatzeko lehenbiziko igandean ospatu zuten auzoko besta Lurriztiederrakoek. 55 lagun inguru bildu ziren Agerrebereko Bordan bazkaltzera. Ondotik trikitilari- giroa alaituz arratsalde ederra pasatu zuten.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Antzinako auto zaharrak herriko plazan

Apirilaren 24 eta 25eko asteburuan Lancia Navarra Tourraren laugarren edizioa izan zen eskualdean. Marka honetako antzinako ibilgailuak Etxalar-ko Benta hartu zuten elkargune eta bertakoez gain, Italia, Ingalaterra, Irlanda eta Alemaniako auto-gidari- ere parte hartu zuten. Errioxa bisitatu ondotik, Lancia auto- zaharrak 11:00k aldera hasi ziren plazara ailegatzeko eta eguerdirako plaza autoz beteta zegoen.

GOYA

UZTAILEAN LANGILEA JUBILATZEN DELAKO

DENDA TTIKITU BEHAR DUGU

%50

DESKONTUAK

eta %2ko deskontuak Club mas por ti txartelarekin

GURE TXOLLOEN TXOKOA

Galtzak - Gonak - Jauntziak
Kamisetak - Burdin tresneriak
Txubaskerak - Tsamarrak
Aitonbrak - Blusak - Batak...

BETIKO PRODUKTUAK

Kortinen konfekzioak
Lanerako arropa - Toallak
Maidireak - Mantak
Edredoiak - Nordikoak
Nordikoen fundak
Kapeluak - Euskal arropa
Lanparak - Menajea
Oparitzeko detaileak

EZ GALDU AUKERA HAU ETA ZATOZ GURE TXOLLOAK BILATZERA ZERBITZU PERTSONALIZATUA, KALITATE ETA PREZIO EZIN HOBEAN

KONPROMISORIK GABE, ZATOZ. EZ ZARA DAMUTUKO

JATEETXO - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

KULTURA → LITERATURAZ GOZATZEKO

Eskolan egin duten mediateka herritar guztien eskura paratu nahi dute

Guraso, ikasle eta irakasleek egin dute

TTIPI-TTAPA

Liburuak, bideoak, DVDak, CDak, aldizkariak, ordenagailuak... Denetarik aurki daiteke eskolako mediaketa berrian. Momentuz eskolako en eskura dago, baina zerbitzua herri osoari eskaintzea da asmoa.

Irakurketaz gozatu eta liburuak zaindu, mediateka baten antolakuntza eta erabilera ezagutu eta mediateka informazio-iturri gisa erabiltzeko helburuarekin hasi ziren irakasleak proiektua garatzen. Eta ikasleekin eta gurasoekin elkarlanean egin dute, aitzinetik bertze tokietako liburutegien funtzionamendua nolako den ikasita. Behin hori eginda, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak funtzionamendua ze-

haztu eta ia 2.000 liburu sailkatu dituzte. Lehen ziklokoak eta Haur Hezkuntzakoak, berriz, apainketaz arduratu dira, eta irakasle eta gurasoak liburuak ordenagailuan katalogatzeaz.

Egindako lanak, gainera, saria ekarri du. Nafarroako Gobernuak irakurketa indartzeko antolatutako sariketan, 250 euro eman baitizkio eskolari. «Saria ongi etorri zaigu liburu batzuk erosteko», aipatu digute eskolakoek. Baina gaineratu dutenez, «orain arte 1.000 liburu baino ez ditugu katalogatu» eta denen laguntzarekin, lan guztia heldu den urtean akautzea espero dute.

Emaitzarekin gustura daude: «sekulako lana egin dugu». Gainera, euren irudiko, «ikasleek, izugarritzko motibazioarekin ekiten diote irakurtzeari eta dudarik ez egin, ikasterakoan lagungarria izanen zaiela».



ARGAZKIA: IGANTZIKO ESKOLA

Eskolako neska-mutikoak burubelarri ibili dira mediaketa antolatzeko lanean.

Eguraldi txarrari aurpegi ona Udaberriko Bestetan

Eguraldiak ez zuen aunitz lagundu, baina giro ederrean joan ziren Udaberriko Bestak. Ortziraleko bertso afarian, adibidez, 40 bat lagun bildu ziren.

Haur eta gurasoen larunbat goizeko mendi irteera, ordea, eguraldi txarratik egin gabe gelditu zen. Horren ordezt betiko jokoak izan zituzten, frontoian. Arratsaldean, eskolako ikasleen antzerki emanaldia ere hagitz arrakastatsua izan zen.

Igande goizeko mendi irteeran jende guttiak parte hartu zuen, eguraldi txarra egin baitzuten. Eta musika eskolako emanaldia ere ber-



ARGAZKIA: MILA IRAOLA

Bertze txapel bana Irurtzundik

Unai Telletxea eta Joseba Aldabe bikotea berriz ere txapelkun izan da, oraingo honetan, Irurtzungo Pilota Txapelketan, infantil mailan. Maiatzaren 1ean jokatu ziren finalak eta nahiz eta galtzen hasi, 18-13 irabazi zieten Burlatako Iñigo Larunbe eta Joseba Sarasari. Argazkian aurkariekin ageri dira Telletxea eta Aldabe, txapela buruan eta kopa eskuan dituztela —ezkerretik hasita, lehen biak—.

tan behera gelditu zen. Dena den, ikasturtea bukatu baino lehen, segu-

raski ortziral arratsalde batean eskainiko dute saioa.

DIETA
PERTSONALIZATUAK
SANDRA LEGASA ROSA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

HOMEOPATIA
KONTSULTA
ZURIA DORRONSORO
MEDIKU HOMEOPATA

oreka

nutrizioa eta dietetika
belardenda

arretxea 7, LESAKA
t. 948 63 73 73



ARANTZA

KOMUNIKABIDEAK → GRABAKETAK HERRIAN

Arantzari buruzko saioa grabatuko du Xaloa Telebistak hurrengo astean

Grabaketak Interneten paratuko ditu ikusgai

Nerea ALTZURI

Tokiko hedabide baten lana nolakoa den erakusteko, eta bidenabar, ikasteko asmoz, Xaloa Telebistak *Herriz-Herri* egitasmoa jarri du martxan ikasturte honetan. Hainbat herrietako eskoletan sartu eta ikasle eta irakasleekin harremanetan egoteaz gain, herriko jende ezagunekin egindako elkarrizketekin osatzen dute saioa. Lehiaketak ere bere tartea izaten du. Gainera, Iñaki Alustiza aranztarra eta Xaloako aurkezlea, gidari lanetan aritzen da.

Maiatzaren 24tik 28ra Xaloako unitate mugikorra herrian izanen dugu eta kameralari, teknikari eta aurkezleek herriko hainbat txoko eta kontu bilduko dituzte. Arantzari buruzko saioa grabatuko dute, eta Xaloa Telebista ezin bada iku-

si ere, Internetera sarbidea duzuenok www.tokiko.tv-en aukera izanen duzue. Erne beraz!

Medikuaren etxeko obrak

Aspaldikoxtik medikua-

ren etxearen gaiari tiraka gabilta. Izan ere, etxebizitza bilakatzeko asmoz, herriko langileak goiko solairuan lanean ari dira. Udalaren nahia lan hauek urte honen barrenean ahalik eta

abudoen egitea eta errentan ematea da, egindako inkestaren emaitzak errespetatuz. Hala, lehendik dauden etxe hutsak erabiltzeko modu egokia dela uste du Udalak. Eta familia

edo herriko norbaitek etxearen beharra balu, irtenbidea emanen litzaioke.

Oraindik zehaztu gabe dago nolako baldintzak izanen diren errentan ematerako orduan. Baina proiektu hau aitzinera doa eta interesatuekin harremanetan jartzeko asmoa dago. Gisa berean, aranztarrei etxea ikusteko aukera ematea ere pentsatzen dabil Udala, eta horren ondotik, deialdi berri bat egitea. Etxea eta obrak ikusi ondotik, jendeak pausoa ematea errazagoa izanen delakoan baitago. Honen berri gehiago izanen dugula ageri da azken udal berrietan.



ARGAZKIA: JULEN OSKOZ

Sendotzaren ondotik, bataioak eta jaunartzea

16 gaztek Sendotza egin zuten joan den maiatzaren 2an. Sei herritarrak eta bertze hamar igantziarrak. Gazte hauen guraso, familiako eta gainerako herritarrek tarteko, jende andana bildu zen mezan. Bi urtetik behin izaten denez konfirmazioa, lau urteren buruan herrian izanen da. Hurrengoa Igantzin eginen baita. Bertzalde, larunbat honetan, maiatzak 15, hiru haurren bataioa izanen da 12:00etan, eta horien artean daude, Olaia Mindegia Taberna eta Josu Larraioz Alzuri. Sakramentuen zerrenda osatze aldera, ekainaren 6an, Jaunartzeak izanen dira: Igor Alzuri Otxoteko, Julen De La Loma Bergara, Aimar Zubieta Larretxea eta Jon Zabala Iparragirrek eginen dute Jaunartzea.

Mendi Itzulia hilaren 23an

Kirolen atalean -39. orrialdean- xehetasun guztiak aurkituko baldin badituzue ere, herriko kronika honetan ezin aipatzeke utzi maiatzaren 23an eginen den Mendi Itzulia. Eguraldi ona egitea espero dugu.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA
JATETXEA
ATERPE ALERZIA

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jardunbidea 8 - 48000
Tel/Fax: 948 630 018 - Kanttonberri 12 - BERA

GIZARTEA → ARTZAINEN BESTA MAIATZAREN 1EAN

Ameriketean artzain ibilitakoak berriz ere elkartu dira maiatzaren 1ean

Euskal Herriko Topaketa ere herrian izanen da aurten

Jaione OTXANDORENA

Ameriketean ibilitako artzainak 1987. urtean hasi ziren elkartasun besta ospatzen eta aurten ere ez zuten hutsik egin maiatzaren 1ean. Herritarrak ez ezik, ingurutik eta eskualde-rik kanpo ere bakarren batzuk agertu ziren Ulibeltzak elkartean egin zuten bazkarira. Ohikoa denez, eta Ameriketako ohiturari eutsiz, lurrazpian egositako ogiarekin bazkaldu zuten. Gero, Arizti-gain kanpineko jatetxean afari-berendua ere egin zuten.

EUSKAL HERRIKO ARTZAINEN BESTA

Artzainen hurrengo topaketa irailaren 19an

izanen da. Orduan, Ameriketean ibilitako Euskal Herri osoko artzainen besta eginen da herrian, aitzineko urteetan Lesakan, Elizondon edo Alduden egin den bezalaxe. Xehetasunak eguna hurbildu ahala emanen ditugu.

Argazkilaritza ikastaroa

Argazkilaritza trebatu nahi dutenek aukera ezin hobea izanen dute: maiatzaren 18tik aitzinera argazkilaritzako hastapen ikastaroa emanen da herrian. Astearte eta ortzegunetan izanen da, 20:00etatik 21:30era. Irakaslea Asier Pagoaga izanen da eta 50 euro gostako da hilabete osoko ikastaroa.

Ikastaro honetan izena eman nahi duenak telefono honetara deitu beharko du: 685 753564.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Artzainek lurrazpian egositako ogiarekin bazkaldu zuten



ARGAZKIA: AINTZANE ARRETIXEA

Giro ederra sortu zuten maiatzaren 1ean lau gazteek

Aitzineko alean aipatu bezala, maiatzaren 1ean apustua egin zuten herrriko lau gazteek. 09:00etan eman zioten hasiera, eta ibilaldi guztian hagitz parekatuak joan baziren ere, azkenean Iñaki Mikelarena eta Aitor Agirrek minutu eta erdiko aldea atera zioten David Ezkurra eta Arkaitz Vicenterri. Baina ez zen emaitza garrantzitsuena, sortutako giroa baizik, jende aunitz bildu baitzen mendi kaxkoetan eta helmugan lau gazteei animoak emateko. Zorionak lauei!

CAMPING BIZTIGAIN

OSTATU JATETXEA

- pintxoak
- bokidoak
- pizza
- potaje konfesionala
- menpek
- kofete

17701 SUNBILLA
NAVARROA
Tel: 943 402 342
943 402 343
info@campingbiztigailin.com
www.campingbiztigailin.com

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA

AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

ITUREN

OSPAKIZUNAK → HIRUGARREN EDIZIOA

Malerrekako Gazte Eguna egingen da maiatzaren 22an Iturenen

Gaueko kontzertuetan bortz musika taldek joko dute

Arkaitz MINDEGIA

Gazte talde bat elkartu eta duela hiru urte sortu zen Malerrekako Gazte Asanblada. Geroztik hainbat ekimen bultzatu izan ditu, eta horien artean Gazte Eguna antolatzea izan da. Donamarian eta Legasan egin dira orain arte, eta aurten, maiatzaren 22an, Iturenen egingen da. Goizean goizetik hasita hainbat ekitaldi izanen dira:

EGITARAUA

- 09:00etan gosaria.
- 10:30ean txalaparta eta malabare tailerra.
- 11:30ean hitzaldia, Irlandako gatazka eta bake prozesuaz.
- 12:30ean haurren jokoak.
- 14:00etan bazkaria.
- 17:00etan kalejira herriaren barna.
- 18:30ean bertsolariak, raperoak, break-

dance eta Goienetxe anaiak.

- 20:30ean sorpresa.

KONTZERTUA

•21:30ean, Gazte Eguneko ekitaldirik handiena hasiko da: kontzertuak. Etnia, Sutan, Soñadores Natos y La Reggae Band eta Akatu taldeen musika aditzeko aukera izanen da eta ondotik, gaupasa izanen da Gabezin taldearekin. 21:00etik aitzinera txoznan bokatak izanen dira.

Dantza ikastaroak

Bertze urte batez, dantza ikastaroa antolatu du Ibintza Kultur Taldeak. Hilabete batzuek atsedendia hartu ondotik, dantzari ttiki, ertain eta haundiak dantza berriak ikasten hasi dira. Gainera, Aurtizko gaupasan erakustaldia ere eskainiko dute.

Bertzalde, aipatu, norbaitek dantzak ikasi nahi baditu Herriko Etxeko Ganbarara hurbil daitekeela ikastaroetara edo bertzela, Kultur Taldeko norbaiti erran diezaioke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Yamiled gogoan

Hilketaren lehenbiziko urteurrenean, Yamiled Giraldo gogoratu zuten herritarrek. Kolonbian jaio eta azken zazpi urteotan Iturenen bizi zen Yamiled, eta joan den urteko apirilaren 25ean Cordovillan tiroz hil zuten. Lau seme-alaben ama zen Yamiled eta herrian aunitz barneratua zegoen familia osoa. Duela urtebete ere, hainbat mobilizazio egin zituzten herritarrek zein inguruko herrietako bizilagunek eta Udalak, bere aldetik, hilketaren gaitzespen-agiria ahabatez onartu zuen.

Parlamentariak eskolan bisitan

Bistakoa da eskola berria behar dela, eta horixe adierazi zieten eskolakoek Nafarroako parlamentariari apirilaren 30ean, eskolan izan baitziren bisitan. Banatuak dauden ikasgelak ordezkatzearen beharra azpimarratu zieten. Izan ere, ingeleseko klaseetara joateko errepidea gurutzatu behar izaten dute neska-mutikoeak, eta gimnasio gisa Ganbara erabiltzen dute. Tximiniaren arazoa ere aipatu zieten, biz-

pahiru aldiz su hartu duelako eta horren ondorioz, ikasleak eskolara sartu ezinik gelditu izan dira.

Eskola berria ikasturte honetarako egitekoa zen, Udalak duen 2.100 metro koadroko eremuan, baina badi-rudi krisiak atzeratu duela obra. Gainera, hurrengo urtean ikasle gehiago izanen dira –orain 49 dira, eta heldu den ikasturtean 54 espero dira–, eta bezaraz, beharra haundiagoa izanen da.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

HOBETO bizi!

- Eskalera ikotzeko aulkak, plataformak, igogailuak.
- Gurpil-aulkik, makuluak, tuka-takak.
- Bainugelen egokitzes.
- Higiena pertsonalerako tresna egokituak.
- Janzen laguntzeko tresnak.
- Etxeko tresneria egokituak.
- Segurtasunerako zinemak.
- Telefono beneziak.
- Errehabilitaziorako artikulak.
- Joku beneziak.

www.hobetobizi.net
Fuenterrabia, 37.aren parean • IRLUN • T. 943 633 014

UDALA → AZPIEGITURAK

Aingeru itturri auzolanean konpondu nahi du Udalak uda aldera

Azken urteotan utzita dago eta moldatzeko beharrean

Fermin ETXEKOLONEA

Mugimendu gehiago izaten zen garai batean Aingeru itturri, besteak beste, arropak garbitzera hantxe biltzen baitziren. Teilatua ere izaten zuen orduan, baina orain, denborarekin eta ez erabiltzeagatik, hondatuz joan da. Ura ere ez da behar bezala heldu eta horri aterabidea ematea erabaki du Udalak. Uda aldera, auzolanean moldatzea pentsatu du.

Herriko eraikinen garbiketa

Herriko Etxea eta medi-



ARGAZKIAK: FERMIN ETXEKOLONEA

Aingeru itturrik gaur egun duen egoerak ez du deus ikustekorik garai batean zuenarekin.

kuaren kontsultaren garbiketa lehiaketara ateratu du aurreko urteetakoak dira: udal bulegoak astean bi aldiz garbitu beharko dira eta medikuaren kontsulta egunero. Udalak 1.400 eurotan finkatu zuen hasierako prezioa eta kontratua urtebetetarako izanen litzateke.

Edozein modutan, baldintzak aurreko urteetakoak dira: udal bulegoak astean bi aldiz garbitu beharko dira eta medikuaren kontsulta egunero. Udalak 1.400 eurotan finkatu zuen hasierako prezioa eta kontratua urtebetetarako izanen litzateke.

Usategietako oihan aprobetxamendua

TTIPI-TTAPAren aurreko alean aipatu bezala, Usategieta parajearen oihan aprobetxamendu bat ateratu du enkantera Udalak. Dagoeneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean ar-

gitaratua da iragarkia eta maiatzaren 25ean akituko da eskaintzak aurkezteko epea.

Planak egiten

Maiatz hondarrean eta ekainean izanen diren ekitaldiei begira daude herritarrek. Trinitate Eguna maiatz hondarrean, Bestaberrri Eguna eta Orizako festa ekainean... Izanen da non gozatua, baina horien inguruko xehetasunak hurrengo aleetan emanen ditugu.

Herria haunditzen...

Zubieta haunditzen ari zaigun seinale, etxe berri bati teilatua eman diote orain gutti. Horrelakoak berri onak dira herriarentzat, dudarik gabe...



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

DONEZTEBE

KIROLA → ALEBIN MAILAN NAFARROAKO JOLASAK

Hiru domina eskuratu dituzte Errekako judoek Kirol Jolasetan

Finalak kiroldegian jokatu ziren apirilaren 24an

TTIPI-TTAPA

Alebin mailako Nafarroako Kirol Jolasen judoko finalak jokatu ziren apirilaren 24an kiroldegian. Erreka Kirol Elkarteak kirolariak ere han aritu ziren, eta emaitza onak eskuratu zituzten, gainera. Are gehiago, sariak lortu zituztenak txapelketa batean parte hartzen zuten lehenbiziko aldia zutelak kontuan hartuz. Hiru domina lortu zituzten Errekakoek: Maider Jabalerak urrezko domina eskuratu zuen; eta Oier Berasategi eta Andrea Vazquezek brontzezkoa.

LAN ONA

Bigarren postuaren bila lehian aritu zen Oier Berasategi, baina azkenean brontzearekin gelditu zen, epailearen zalantzako erabaki bat tartean zela.

Andrea Vazquezek ere brontzea eskuratu zuen. Urduritasunagatik edo lehen lehian kale

egin zuen, baina, bigarren saio luzea, gogorra eta ona egin zuen.

Maider Jabalerak, bere aldetik, merezitako urrezko domina lortu zuen. Iruñeko lehen fasean irabazia zuen eta Donezteben ere azken arte nagusitu zen.

Gainerakoan, giro polita sortu zen kiroldegian, jende dezente hurbildu baitzen finalak ikustera.

TXIRRINDULARIEN JANTZIAK

Errekako txirrindularitza taldea iragarritako jantzi berriak banatzen hasi da dagoeneko, bere garaian eskatu zituzten artean.

Errekaren Eguna ekainaren 5ean

Aurtengo Erreka Elkartearen Eguna ekainaren 5ean egingen da. Ohi bezala, judo eta eskubalo erakustaldiak eta partidak izanen dira, eta gauean herri afaria eta gaupasa. Egun nagusia larunbata izanen bada ere, bezperan ere izanen dira ekitaldiak, mendiko proiektzioa eta mus txapelketa tartean. Xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Ezkerretik hasita, Andrea Vazquez, Maider Jabalera eta Oier Berasategi, Oskar Mindegia judo irakaslearekin batera.



ARGAZKIA: MAITE OSKOZ

Tunezerako bidaia badu sariduna

Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak Tunezera bi lagunentzako aste bateko bidaia eta 100 euroko erosketa balea zozketatu zituen apirilaren 24an. Kasino elkartearen elkartu eta hantxe egin zuten zozketa. Horren arabera, **Donamaria-ko Pili Arretxeari egokitu zaio Tunezerako bidaia eta Zubietako Jasone Astibia da 100 euroko erosketa balearen irabazlea.** Lerro hauen bidez, merkatariek eskerrak eman nahi izan dizkiete Kasino elkarteari bere laguntzagatik eta bezeroei adierazi duten fideltasunagatik. Bertzalde, maiatzaren 1ean karrak atera ziren merkatariek eta euren produktuak kalean eskaini zizkieten hurbildu ziren bisitari eta bezeroei. Haurrek ere ederki gozatu zuten herrian barrena harat-honat ibili zen trenean.

UDALA → AZPIEGITURAK

24.000 euroko laguntza emanen du estatuko gobernuak frontoia berritzeko

Denborarekin zola hondatu egin du eta berrikuntza behar du

Fernando ETXEBERRIA

1940an berreraiki zen frontoia, baina 1980an berriz ere obrak egin behar izan ziren estalia izan zedin, eta bide batez, festak eta kirol zein kultura ekitaldiak behar bezala egin ahal izateko. Denborarekin, ordea, zola hondatu egin da eta Udalak berritzea erabaki du. Estatuko gobernuari dirulaguntza eskatu dio eta honek 24.000 euro emanen dituela iragarri du. Bide batez, duela hilabete batzuetako haizeteak kendu zuten frontoiko teilatu zati bat konpontzeko aprobetxatuko dira lanak.

DATUA

1940

URTEAN

berreraiki zen pilotalekua eta 1980an estalkia jarri zitzaion, ekitaldiak behar bezala ospatu ahal izateko.

Ehiza postuen garbiketa

Txatxangorri Ehiza Elkartearen akordioetako bat, urtea akitu baino lehen ehiza postuen ingurua garbitzea izaten da. Baina badi-rudi hain memoria ona ez duen bazkideren baten ez duela bere lana bete. Zehazki, zortzigarren ehiza postuak garbiketa orokorra behar du.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Frontoiaren zolak berritzeko beharra duela iritzi, obra egitea erabaki du Udalak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

San Migelen bisita

Beste urte batez, San Migelen bisita izan genuen maiatzaren 3an. Aurten ermitan egin ziren ospakizunak, egun horretan Santa Kruz ermitako festa tokatu baitzen. Baina garai batean herri osoa biltzen zuen ohitura zaharra desagertzeaz dago eta adinekoek nostalgiaz gogoratzen dute lehen urteko festa egun haundietakoa zena: Goizuetako mugan goiaingeruari harrera egin eta herriko karrketan barna ibiltzen ziren, ezkil-hots eta suzieren artean, eta *Migel Migel gurea gorde gorde Euskal Herria* kantatuz. Aipatu bezala, aurtengoan maiatzaren 3an etorri zen santua ermitara, autoz, eta 37 lagunek egin zioten ongi-etorria. Biharamunean, meza eta santuari musu eman ondotik, Eratsun aldera joan zen.

elVelocimetro.com

Gidatzeko baimena internet bidez lortzeko lehenengo autoeskola. Zure neurira eta zauden lekuan zaudela.

www.elvelocimetro.com

- festak
- hiztegia
- bideoak
- azterketa
- liburua
- praktikoa

50€ + klase praktikoa

LANA

LANGABEZIA DATUAK → DONEZTEBEKO ENPLEGU BULEGOAN

Martxoan baino 40 langabe guttiagorekin joan da apirila

1.149 langabe daude Doneztebeko Bulegoan

zen langabezia. Eta zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, nahiz eta apirilean jautsiera handiena somatu zuena ere arlo horizan,

667tik 635era egin zuen. Industrian ere 20 langun guttiago zueden lanik gabe, 254. Eraikuntzan berdin mantendu zen langabezia (163 langa-

be); nekazaritzan, 22tik 24ra igo zen eta aitzinetik lanik egin ez zutenak 73 ziren apiril hondarrean, martxoan baino 10 gehiago.

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Enplegu Bulegoan 1.149 lagunek emana zuten izena apiril hondarrean, martxoan baino 40 guttiago. Oraindik langabe kopurua handia bada ere, apirilean %3,36 egin zuen behiti eskualdean. Doneztebeko Bulegoaren bitartez, 359 kontratu egin ziren apirilean, baina horietatik 55 bertzerik ez ziren mugabeak izan.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitikoaren artean somatu zen gehien jautsiera; giza-semeetan 524tik 505ra jautsi zen langabe kopurua eta adin tarte horretako emakumeen artean, 528tik 504ra. 25 urtez behetikoen arteko giza-semeetan 91tik 87ra jautsi zen, baina emakumeetan, 47tik 53ra igo zen.

Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloan eta industrian bakarrik jautsi



ARGAZKIA: LAB

Ezkerreko proiektu bat berreraikitzearen alde egin du LABek

Langileen eskubideak aldarrikatzeko Elizondo aukeratu zuen eskualdeko LAB sindikatua maiatzaren 1ean, Langilearen Nazioarteko Egunean. Goizean elkarretaratzea egin bidenabar gosaria egin zuten eta ondotik udaletxeko plazatik abiatuta herrian barna ibili ziren, txistularien laguntzarekin. LABek adierazi dutenez, 130 bat langun elkartu ziren, eta *Baztan-Bidasoak bizi behar du, Ez ez ez despidorik ez, Jo ta ke irabazi arte, no falta dinero sobran ladrones edota reforma laboral para la patronal* oihuak aditu ziren. Manifestazioaren ondotik, ezkerreko proiektu bat berreraikitzearen alde egin zuen LABek, «hori da denon lana etorkizunean». Gisa berean, «eredu berri bat sortzeko gaitasuna dugu, baita horretarako indarra ere», nabarmendu zuen eta euren alternatiba aurkeztu: «lanaren banaketan oinarritutako kalitateko enplegu estrategia; babes sozial duina eta euskal pentsio sistema publikoa; emakume eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna; euskal sektore publiko sendo eta eraginkor bat; eta erabakietan parte hartzeko aukera eta bitartekoak sortzea».

BIDE-BERDEA

Legasa-Elizondo zatia proiektatzen akituko du aurten Bertizko Partzuergoak

TTIPI-TTAPA

Bide berdearen garapenean lanean segitzen du Bertizko Turismo Partzuergoak. Horrela adierazi dute Partzuergotik ohar bidez. Eta erran duenez, Nafarroako Gobernuko Landa Garapenearen Departamentuaren laguntzarekin, aurten Legasa-Elizondo zatia proiektatzen akituko da. Eurovelo egitasmoaren barne, berriz, Doneztebe-Endarlatsa zatiarekin segitzeko, Lesaka eta Doneztebeko udalekin akordioak sinatu behar izan dituztela ere jakinarazi du, biak ere Partzuergotik kanpo daudelako. Aipatzekoa da, Eurovelo proiektu honetan, Europako eta Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak izanen direla.

Bertzetik, Gobernuak hitza eman omen du errepide berriko lanekin hondatu diren zatiak konponduko dituela, Igantzin eta Lesakan.

Eta maiatza bide berdeen hilabetea dela eta, bide berdeen informazioa jasotzen duten materiala salgai paratu dute Bertizko erakusketa-dendan. Gidak hiru liburukitan daude eta estatuko 92 bide berdeen informazioa jasotzen dute.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Etxe Ardi Garta
Lizun
GAZTANDEGIA
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

Eskalerak igoatea... ez da oztopo!
Behetik
plataformak
igogailu bereziak
aulk bereziak...

Aforgo-tak. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

ZURI ESKER DENON GEROA HOBEA IZANEN DA

Zuri esker gaitituko dugu. Zuri esker, geroa egiten dugu, gehiago bizi gara, aurrera egiten dugu, eta enplegua eta aberastasuna sortzen, lehenago ailegatzen, ikasten, segurtasuna eta atentzioa hobetzen, pausoak ematen. Zuri esker eta zurekin, bagoaz aurrera...



2009KO ERRENTAREN AITORPENA
2010EKO APIRILAREN 16TIK EKAINAREN 22RA



2012 | ZUREKI BAGOAZ AURRERA



Telekomunikabideetako elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika industrialia mikroprogramablea



Eraikuntza eta topografia



Fabrikazio mekanikoko diseinua

Zure etorkizuna, gure

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dira industriaren sektoreko lanbide-arloan: Mekanizazio Ekoizpena, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskera), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik goizez eta bi kurtsotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egin nahi duten ikasleentzat ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Orduetgia ikaslegoaren beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bertzelako beharrak ikasketarekin tartekatu ahal izanen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratuz.

Eleaniztasuna


Ikasturte honetan eleaniztasun eskaintza zabaldu egin da eta frantsesez edo ingelesez moduloak dituzten zikloak egin daitezke. Fabrikazio mekanikoa (ingelesez) eta arrotzeria eta altzarigintza (frantsesez), Instalazio Elektroteknikoak (ingelesez) eta Topografia (ingelesez).

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Leonardo da Vinci (Erdi Mailakoentzat) eta *Erasmus* (Goi Mailakoentzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpresetan praktikak egiteko aukera dute martxotik ekainera bitarte. Urtean 20 beka izaten dira batezbeste eta, hala, Bidasoa Institutuko ikasleek aukera dute nazioartean barneratu, atzerriko hizkuntza hobetu eta Europako industria ezagutzeko.



Mekanikako produkzioaren programazioa



Instalazio elektroteknikoak



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

re erronka

INSKRIPZIO EPEA
Maiatzaren 31tik
ekainaren 11ra
biak barne

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, ikasketak bukatzen dituzten ikasleen enplegatze-indize altua bermatua dago. Gainera, ikastetxeak segimendu-lana egiten du eta, enpresen eskaeraren arabera egituratutako lan-poltsaren bitartez, gure ikasleek lanpostu berriak eskuratzeko edo beren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzaitzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamaika enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Lan esperientziaren homologazioa

Autonomia Erkidegoko ikastetxeen artean, Bidasoa Institutuak lan esperientziaren edo irakaskuntza ez-formalen bidez, ikasleek lortu dituzten gaitasunak aintzat hartuak izan daitezten laguntzen du, eta baldintzak betez gero, Teknikari edo Goi Mailako Teknikariaren titulua lortzeko aukera eskaintzen du.

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresen prestakuntza-beharren diagnostikoa

ATE IREKIEN ASTEA

ERDI MAILA:

astelehena, maiatzak 24, 18:30ean

GOI MAILA:

asteartea, maiatzak 25, 18:30ean

ARRETA PERTSONALIZATUA:

Maiatzak 26, 27 eta 28, 17:00 - 20:00

2010 / 2011 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza osoa goizez

Hizkuntza Eskaintza A, D eta eleanitza *

* **Gaztelera, euskara, ingelesa, frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA (Eleanitza ingelesa)

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

AROTZERIAKO ETA ALTZARIGINTZAKO
PRODUKTUEN GARAPENA (Eleanitza frantsesa)

HIRIGINTZA PROIEKTUEN GARAPENA
ETA TOPOGRAFIA-ERAIKETA

INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK (Eleanitza ingelesa)

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA

TELEKOMUNIKABIDE ETA
INFORMATIKA SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

NEURRIRA EGINDAKO AROTZERIAREN ETA
ALTZARIEN FABRIKAZIO ETA INSTALAZIOA
(Eleanitza frantsesa)

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

KONTSUMORAKO EKIPO ELEKTRONIKOAK

MATRIKULA EPEA
Uztailaren 7tik 13ra
biak barne

GOIZUETA

UDALA → ZERBITZU BERRIA HERRITARREN ESKURA

Eskaerak eta kontsultak telefonoz egiteko 012 zerbitzua jarri du martxan Udalak

Tramitazioak telefonoz egiteko aukera ematen du

Esteban AROTZENA

Telefono bidez herritarrei arreta eta laguntza eskaintzen duen zerbitzu berria abiarazi du Udalak: 012 zerbitzua. Apirilaren 30etik dago indarrean, eta zenbaki horretara deitzea nahikoa da, hainbat tramitazio eta kontsulta egiteko.

Besteak beste, udal informazioa eskura daiten, tartean, Goizueta-kultur eta kirol agenda. Horrekin batera, errolda eta katastroko ziurtagiriak eskatzeko bidea ere badago, baita Udalak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko aukera ere. Erroldako datuak kontsultatu, ziurtagiriak eskatu, datu pertsonalak aldatu, zerga eta tasak ordaindu... Horiek eta beste hainbat egiten ahal dira 012ra deituta. Norbaitek kekek aurkeztu edo iradokizunak egin nahiko balitu, gauza bera egin beharko luke.

TELETRAMITAZIOA ONLINE

Bizpahiru hilabete barer, teletramitazioa *online* jarriko du Udalak. Eta horretarako Espainiako Gobernuaren Enplegu Planarekin hartuko den dirulaguntza erabiliko da. Zerbitzu berri honekin, nortasun agiri elektronikoa erabilia, orain arte udaletxean egiten ziren hainbat tramitazio Internetez egiten ahal izanen dira: zerga eta tasen ordainketa, ordainketa helbideratua, administrazioaren espediente guztiak kontsultatu, artxiboa jaso, instantziak eta bestelako orriak deskargatu, kekek eta iradokizunak egin... Udalak espediente guztiak digitalizatu dituela ere aurreratu digu Mieljoxe Lekuona alkateak.

Bestalde, artxiboa digitalizatzeko lanari ere ekin dio Udalak. Liburu historikoak-XVI. eta XVII. mendekoak batzuk-, euskari digitaletan jartzea da helburua, 15.000 orri zehazki, eta lan hori egiteko ardurua El Corte Ingles enpresari esleitu dio Udalak, 18.000 eurotan.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ALAITZ ESKUDERO

Euriak ere ez zituen galdu nahi izan Txino auzoko jaiak

Ostiralean, bertsolariak eman zioten Txinoko jaietako egitarauari hasiera, eta ondorengo mus-txapelketa ederki joan zen. Iban eta Ape egin ziren sari nagusiaren jabe. Larunbatean, euriak ere ez zituen galdu nahi izan zazpigarren edizioa zuten Gazte Asanbladak antolatutako festak. Dena den, Manuel eta Joxefinak botatako txupinazoaren ondoren, eguraldiagatik eguerdira bitarteko ekitaldiak auzotik kanpora egin ziren. Eskoletako frontoia bete-bete egin zen herri kirol apostua eta dantza emanaldiarekin, baita Goiko frontoia ere! 270 bazkaltiar inguru bildu baitziren. Arratsaldean, zerua lehertu bezain pronto, jendea Txino auzoan elkartu zen Laket taldearekin dantza egiteko. Aipagarria, Zubi-Ondo tabernan Axierren partida ikustera elkartu zen jendetza eta sortu zen giro beroa. Nahiz eta emaitza gustukoa ez izan, ez zen oztopo izan jaiarekin segitzeko, eta gauean, ska, punk eta reggae doinuek eman zioten amaiera egitarauari. Halere, jaiak igande goizera arte luzatu zen.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Pilotari gaztetxoak Irurtzungo Txapelketan

Hiru mutiko hauek berriz erakutsi dute ederki moldatzen direla pilotan. Irurtzungo Txapelketan, benjaminetan, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea tantu bakarragatik gelditu ziren txapelik gabe, 17-18 galdu baitzuten Oberenakoen kontra. Baina alebinetan, Jon Lezea leitzarreakin, Iker Salaberriak irabazi egin zuen.

Kanpina zabalik

Iskibi kanpinak hasi du denboraldi berria, eta urtero bezala, ekitaldi askorekin dator. Ostiralean, hilak 14, Mikel Ajuria Oiar-

tzungo eskalatzailak Yosemitem bideo emanaldia eskainiko du 22:00etan. Horrez gain, hilaren 29 goizerako mendi bizikleta ibilaldia antolatu du.

Dohainik izanen da eta bi ibilbide egonen dira aukeran, luzea eta laburra. Ondotik, opariak zozketatuko dira. Eta ekainaren 4an, barrikotea eginen da.

gaztelu sol
iturgintza
kalifikazioa · saneamendua · gasa
Telefono: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

Gure Haragia
Nuestra Carne

ELIZA → SAN MIGELEN BISITA

San Migeli adio esan dio herriak datorren urtera arte

Maiatzeko lehenengo igandean egin du bisita

Ainhoa ANSA

Maiatza sartzearekin batera, bigarren egunean, hain zuzen ere, San Migel etorri zen Arano-ra aspaldiko urteetan egin ohi duen bezela. Herriko asko ustekabean harrapatu izango zituen seguraski, normalean baino goizxeago etorri baitzen oraingoan.

Aranon egun haundia izaten da San Migelen etorrera. Bertakoak izan eta herritik kanpora bizi direnak gustora etortzen dira egun horretan, herria bere tokian dagoen ikusi eta bertakoekin meza entzutea. Jende mordoska bil-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hutsik egin gabe etortzen da San Migel herrira.

du zen eguerdiko mezan aurten ere.

San Migeli herriaren sarreran egiten zaio ongi-etorria. Aspaldiko ohitura da eta aspaldikoa

da baita Elizako dorreko kanpanei hautsak astintzea ere. Lan hori izan du aurten ere Anttonio Exkerrak eta herri guztian entzuten diren kanpanen

soinuak San Migel elizako zimenteriora sartu arte aixa irauten dute.

Aurten goizean egin zuten apaizek herriko lurren bedeinkazioa. Uzta ona izateko suertea eta eguraldi txarren kontra babesa eskatzeko izaten da bedeinkazioa. Errosarioa erreztzea, berriz, arratsalderako utzi zuten eta bertara ere jende kopuru polita joan zen.

San Migel, Goizueta-rako bidea hartu aurretik, datorren urtera arte agurtu zuten aranoarrek. Herriko gurutzeak eta San Migelek elkar besarkatzearekin, irudi horrekin, Aranok eta aranoarrek hurrena berriz etortzen denerako ere ateak eta besoak zabalik izango dituztela adierazi diote beste behin ere bisitari estimatuari.

NAFARROA

Minbizia duten umeak laguntzeko kanpaina maiatzean

TTIPI-TTAPA

Nafarroan Minbizia duten Umeak Laguntzeko ADANO Elkarteak Txapeldun bati Lagundu egitasmoa abiatu du. Euskal Herriko, estatuko eta nazioarteko hainbat kirolaririk parte hartu dute ekimen honetan, sinatutako kirol materiala emanez, eta tartean daude, Olaizola anaia, Bengoetxea VI.a, Errandonea, Olazabal eta Mikel Saralegi. Guzira 73 kirol artikulu bildu dira eta hauek zozketa bidez eskuratzeko txartelak euro batean salduko dira supermerkatu haundietan, kirol elkarteetan eta unibertsitateetan. Zozketa ekainaren 8an egingen da.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
Doneztebe SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
Elizondo FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
Leitza LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
Lesaka LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

LEITZA

KULTUR AROA → MAIATZAREN 23TIK EKAINAREN 6RA

Herriko kirolariak omenduko ditu Udalak maiatzaren 23an

Horrez gain,
hilaren 30ean
artisau azoka
eginen da

TTIPI-TTAPA

Igande honetan zortzi, maiatzaren 23an, hasiko da XXXIII. Kultur Aroa eta denetarik izanen da ekainaren 6ra arte. Halere, aldi honetan, hilaren 31 bitarteko ekitaldiak aipatuko ditugu, eta gainerakoak hurrengoan emanen ditugu.

MAIATZAK 23, IGANDEA

• 12:00etan erro lan-harriaren ondoan: herriko kirolariei omenaldia. Kirol saioa izanen da Udalak antolatuta.

MAIATZAK 24, ASTELEHENA

• 20:00etan Aurreran: *El escándalo monumental* liburuaren aurkezpena.

MAIATZAK 25, ASTEARTEA

• 20:00etan Aurreran:

David Anauten lan sarituaren aurkezpena: *Argiak eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi-goza.*

MAIATZAK 26, ASTEAZKENA

• 20:00etan zineman: Ximeneiak langileen mugimenduari buruzko dokumentala ikusgai, Goizeder Urtasunek egina.

MAIATZAK 27, OSTEGUNA

• 20:00etan zineman: *Ama Dablam-09 espedizioa*, Juan Maritorenaren eskutik.

MAIATZAK 28, OSTIRALA

• 17:00etan plazan: haurrentzako jolasak.
• 20:00etan elkarretartzea. Ondotik *Iraganari begira, etorkizuna irabazteko* Euskal Memoria fundazioaren aurkezpena Aurrera elkartean, Joxean Agirre idazlearen eskutik.
• 23:00etan Peritzan, rock kontzertua Okasientes taldearekin.



ARGAZKIA: HITZA

Eguraldi txarra bai, baina giro ona ere bai

Ez euriak eta ez eguraldi txarrak ere, ez zuten Natur Bideen Eguna behar bezala ospatzea galarazi. Eguraldi txarra zetorrela eta, ibilbideen irteera eta helmuga puntuak geltokitik herriko plazara lekualdatu zituzten, baina gainerakoan oso ongi joan zen. Ehun lagunetik gora apuntatu ziren ibilbideetan parte-hartzera eta horrez gain, beste batzuek ere egin zituzten ibilbideak.

MAIATZAK 29, LARUNBATA

• 08:00etan plazatik abiatuta, mendi ateraldia, Mendibil taldeak antolatuta. Leitzalarreko triku-harriak ezagutzeko aukera izanen da.
• IKA euskaltegiaren 20. urteurrena.
• 00:00etan Atekabeltzen, Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak.

MAIATZAK 30, IGANDEA

• 11:00etan plazan, XXXII. artisau azoka.

MAIATZAK 31, ASTELEHENA

• 19:00etan liburutegian: *Internet eta sare sozialak gazteen eskutan*

hitzaldia, Patxi Gaztelu-mendiren hitzaldia.

Mendi irteera Arabara

Mendibil Mendi Taldeak beste ateraldi bat antolatu du igande honetarako, maiatzak 16. Araba aldera joanen dira, Entziako mendizerran zeharkaldi bat egitera, Andoin-Opakuako mendatea, hain zuzen.

Autobusa 07:30ean abiatuko da Oialde parretik baina izena aurretik eman behar da, ostegun hau baino lehen: Astiz edo Maimur liburu-dendetan edo

mendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatzita.

Iruñera joateko autobusa

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea lelopean, larunbat honetan Iruñean eginen den manifestaziora joateko autobusa antolatu du Kax-Kax euskara taldeak. Iruñeko ekitaldia 18:00etan hasiko da eta autobusa 17:00etan abiatuko da herritik. Izena emateko azken eguna asteazken hau, hilak 12, zen eta Maimur, Astitz, Torrea eta Gaztañagan egin behar zen.



Leitzako irakurleei abisua

TTIPI-TTAPAtik telefono deirik EZ baduzu hartu eta aldizkaria jasotzen segitu nahi baduzu, mesedez, deitu edo bete txartel honetan zure datuak, moztu eta bidali gure helbidera:

TTIPI-TTAPA | Anduetzeta, 12 | 31760 ETXALAR

Izen-Deiturak.....

Helbidea.....

Herria.....

Telefonoa.....

e-Posta.....

Karneta

Bankua

URTEKO HARPIDETZA: 15€

| Informazio gehiago: 948 63 54 58

| info@ttiipi.net

UDALA → AZPIEGITURAK

Udaletxeko goiko solairua gazteentzako egokitu nahi Udalak

Dirua biltzeko Nafarroako Kutxan aurkeztu du proiektua

Juana Mari SAIZAR

Udaletxeko goiko solairua gazteen topagune izateko tokia egokitu nahian dabil Udala, eta horretarako Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu*, *Zuk erabaki* kanpainan aurkeztu du proiektua. Bildutako dirua altzariak, mahaiak, aulkiak, armairuak, entzuteko tresnak, musika aparatuek eta abar erosteko izango litzateke. Beraz, denon borondatea eta laguntza eskertuko dute.

Udarako langileak

Beste urte batez, bi langile kontratatuko ditu Udalak uda aldera, lau hilabetez hainbat lanetan aritzeko.

Langabezian egotea derrigorrezkoa izango da eta aurten gainera froga txiki bat ere pasa

beharko dute interesatuek. Ezinbestekoa izango da euskaraz jakitea, eta horrez gain, kontuan hartuko da zer motatako familia kargak dituzten, eta zenbat denbora daramaten langabezian.

Pistetako lanak hasiak

Aurreko alean, Udalak Hogeikoarekin egindako bilera aipatu genuen, eta bilkura hartan, abeltzaintzako pista zolaberritzeaz ere

mintzatu zirela jakinarazi genuen. Bada, azpimarratzekoa da, pistako lanak basogintzatik heldu diren dirulaguntzekin egingen direla eta dagoeneko Gorritz enpresa hasia dela lanak egiten.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

San Migelen bisita

San Migel Aingeruaren bisita inoiz baino lehenago izan dugu aurten, eta ondorioz, Santa Kruzeko ermitarako erromeria atzeratu egin du Parrokiak. Herrian agurtu genuen santua eta Larraungo artziprestazgo egunean, irailaren lehenengo igandean, Aresoko gurutzeak bisita bueltatuko dio beste hainbat parrokiekin batera.

LEITZA

Enpresa kudeaketa tailerrak

TTIPI-TTAPA

Cederna-Garalurelkarreak enpresa kudeaketa tailerrak antolatzen ditu Leitza liburutegian, enpresa kudeaketa hobetu nahi duten enpresa txiki, ertain eta autonomoentzat. Lehenbiziko tailerra maiatzaren 11n eta 13an egitekoa zen, *Nire enpresak ematen dit mozkirik?: Enpresako kostuen kudeaketa* izenburupean. Hilaren 18an eta 20an, goizez, *Fakturen eta kobrantzen kudeaketa* ikastaroa egingen da. Enpresa txiki, ertain eta autonomoek ez ezik, emailzak hobetu nahi duten Nafarroako Mendialdeko dendei zuzendua dauden beste bi tailer ere egingen dira. Ekainaren 8an eta 10ean, goizez, *Errentagarria da nire enpresa: nola ulertu balantze bat* ikastaroa emanen da eta ekainaren 15 eta 17an, arratsaldean, *Merkatuko kostuen kudeaketa* tailerra. Izenematea 948 625 122ra deituz (10:00-14:00).

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Lanbete zilo erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin arretakuzko gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

ECOGRAS

Erabilitako landare olioaren bilketa

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

EUSKARA

MANIFESTAZIOA → 'EUSKARAZ BIZITZEKO ESKUBIDEA'

Larunbatean Iruñera joateko deia egin du Baztan, Bortzirriak eta Malerreka-ko euskalgintzak

1.600 atxikimendu baino gehiago bildu ditu

TTIPI-TTAPA

«Nafarroan Euskaraz bizi nahi dugunok ez dugu egoera errazik izan aspaldi. Hala ere, jakin dugu indarrak batu eta aurrera egiten. Hori da, hain justu, proposatzen duguna: batzea, eta aldarri egitea *Nafarroan euskaraz bizitzeko esku-*

bidea». Helburu eta lelo horrekin larunbat honetan Iruñean eginen den manifestaziora joateko deia egin du Baztan, Bortzirriak eta Malerreka-ko euskalgintzak. 18:00-etan abiatuko da Golem zinematik. Maiatzaren 5ean Sunbillako Herriko Etxean egindako prentsaurrekoan egin zuten manifestaziorako deia.

Agerraldian adierazi zuten, «euskaraz hitzatu asko gara gauregun Nafarroan. Orain dela 20 urte baino gehiago, herri-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

«Euskaldunok eskubideen murrizketa garbia pairatzen dugula» salatu zuen eskualdeko euskalgintzak maiatzaren 5ean Sunbillako Herriko Etxean egindako agerraldian.

tarren ahaleginei esker». Baina salatu zuten, «eskubide murrizketa garbia pairatzen dugu euskaldunok». Euskalgintzari hitzetan, «ulertezina da Nafarroako Gobernua nola ari den euskaldunon kontra. Modu bereziki bortitzean ari da azkenaldian. Euskarazko komunikabideei lizentziak eta dirulaguntzak kenduz, hezkuntza-sisteman

euskara baztertuz, euskara ikasi nahi dutenei dirulaguntza ezin urriagoak emanez, euskalgintzari hitzetan, «ulertezina da Nafarroako Go-

Berna nola ari den euskaldunon kontra. Modu bereziki bortitzean ari da azkenaldian. Euskarazko komunikabideei lizentziak eta dirulaguntzak kenduz, hezkuntza-sisteman euskara baztertuz, euskara ikasi nahi dutenei dirulaguntza ezin urriagoak emanez, euskalgintzari hitzetan, «ulertezina da Nafarroako Go-

«Beraz, ez al ditugu gainontzeko herritar erdalduen elebarrak dituzten eskubide berberak? Antza denez, ez: bigarren mailako herritar gisa tratatzen gaituzte euskaldunok». Horren aurka, eta «euskaraz eta euskaldunok Nafarroan arnasa behar dugulako: maiatzaren 15ean denok Iruñera», adierazi zuten.

LAN BERRIA → 'EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASAK'

Eskualdeko 13 herritako euskararen alderak ageri dira Euskaltzaindiaren azken lanean

Ahozko euskararen aldaerak bildu dituzte

TTIPI-TTAPA

Ahozko euskararen aldaerak mapetan jasoz, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) argitaratu du Euskaltzaindiak berriki. Urteetako lana-

ren emaitza izan da, 1983-an onartu baitzuten egitasmo hau; 1984an prestatze lanak egin zituzten, eta 1987tik 1992ra inkestak egiten ibili ziren.

Euskal Herri osoko 145 herri hautatu eta horietan egin zituzten inkestak lanak. «Adineko pertsonak aukeratu ziren, sortzeko eta familiaz tokian tokikoak, eta herritik kanpo gutti ibiliak». Eta



ARGAZKIA: EUSKALTZAINDIA

'Euskararen Herri Hizkeren Atlas' kaleratu du Euskaltzaindiak.

145 horietatik 13 eskualdekoak dira: **Aniz, Azkaine, Donamaria, Erratzu, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Leitza, Lekaroz, Sara, Senpere, Sunbilla** eta **Zugarramurdi**.

Landu diren gaien artean, hauek dira nagusiak: abereak; zerua, denbora eta eguraldia; leho-

rra eta itsasoa; arbolak eta landareak; etxe-abereak eta hazkuntza; baserri etxea; baserriko jarduerak, tresnak eta ekoizpena; gorputza, eritasunak eta familiako bizitza; gizaritza eta laneko mundua...

Bi modu daude emaitzak kontsultatzeko: soi-

nuzko datuen kontsultaren bidez –Azkuze Bibliotekan ikertzaileen esku dira CD-ROMak–, eta datu transkribatuen kontsultaren bidez –hau nork bere etxean egin dezake, liburu batean edo CD-ROM batean–. Bertalde, sarean ere jarri du Euskaltzaindiak edukia.

BESTAK → BERROETAN MAIATZAREN 21ETIK 24RA

37. asto lasterketa jokatuko da Mendekoste Egunean

Maiatzaren
21ean botako
da txupinazoa

ORTZILERIA 21 Bezpera

20:00etan bestei hasiera emateko suziriak. **20:30ean** txopo goratzea. **21:00etan** Mutildantzak. **21:30ean** Baztan-Zopak, JOXEAN-JELEk alaituta. **00:00etan** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

LAUNBETA 22 Haurren Egune

12:00etan Leurtza

Abenturaren eskutik: puzgarriak, segway, discgolf... **16:00etan** Leurtza Abenturaren eskutik: puzgarriak, segway, laser paintball, arku tiraketa, discgolf... **20:00etan** asto karra. **21:30ean** herri afaria. **00:00etan** dantzaldia SANTXOTENArekin.

IGANDEA 23 Mendekoste Egune

12:00etan Meza Nagusia. **13:00etan** hameketakoa plazan. **13:30ean** pilota partidak. **18:30ean** herri kirolak. **20:00etan** XXXVII. asto karrera. **20:30ean** dantzal-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Asto karrera eta herri kirol saioa hutsik egiten ez duten ekitaldiak izaten dira Mendekoste bestetan.

dia JOXE ANJELeKin. **22:00etan** xinger jatia.

ASTELEHENA 24 Zikiro Egune

11:00etan XXXVIII. bizikleta itzulia. **12:00etan**

mustxapelketa. **14:30ean** zikiro-jatea JOXE ANJELeKin. **18:00etan** sokatira: ezkonduak ezkongabeen kontra. **19:00etan** futbol-partida: ezkonduak ezkongabeen kontra. **21:00etan** xinger jatia.

22:00etan bestak akitzeko *Gaixoa ni*.

OHARRA

Baztan-Zopetarako txartelak salgai daude.

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN





ttipi-ttapa
www.ttipi.net

Okindegia Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkia
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853



BAZTAN

AZPIEGITURAK → LEKAROZ

Aroztegia proiektuari aldeko txostena eman dio Gobernuak

Txostenak ez du harritu proiektuaren kontrako taldea

TIPI-TTAPA

Lekaroz Aroztegia Jauregiaren eremuan golf-zelaia, hotela eta etxebizitzak egiteko proiektuak Nafarroako Gobernuak Ingurumen Sailaren aldeko txostena hartu du. Aldeko txosten hori Hirigintza Planean adaketa jakin bat egiteko beharrezkoan, 16 hektareako golf-zelaia, 252 etxebizitza eta sei apart-hotel egiteko erabiliko diren lurra urbanizagarri sailkatzeko adaketa, hain zuzen. Ingurumen Sailak ingurumenaren aldeko txostenaren «bideragarria» dela iritzi dio, «baina hobeki integratzeko neurri batzuk aplikatu beharko dira». Hala ageri da apirilaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

NEURRIAK

Proiektuaren bultzatzaileak ingurumenari erreparatu beharko dio. Hartu beharreko neurrietako batzuk hauek dira:

NAOn ageridenez, «bi erreken bazterretan banda zabal samarrak mantenduko dira, lurzorua aldatu gabe. Bideak, aparkalekuak direla-eta egindako betelanak eta lur mugimenduak saihestuko dira. Hori Telleria eta Labadero erreken ezkerreko bazterrean diren etxebizitzetarako lursailen eremuan aplikatuko da bereziki».

Horrez gain, «neurriak hartuko dira urbanizazioa paisaian integratzeko eta interes handiko zuhaitzak errespetatzeko», dio aldizkari ofizialak. Inpaktu bisuala murrizteko neurriak ere hartu beharko dira, eta hari-lubeten gehieneko altuera ere mugatuko da. Errekak eta landaretza ahalik eta gutti- en ukitzeko, errekak gurutzatzen dituen ureztake-



ARGAZKIA: IRURITAKO ESCOLA

Parlamentariak Iruritako eskola bisitatu dute

2009/2010 ikasturtean, Irurita zerbaitegatik solasteko gaia izaten ari bada, hori eskolatik da; hasieran eskola berriaren aldarrikapenagatik eta jantokiagatik bukatu. Egoera ezagutarazteko gurasoak ahal den leku guztietarat ailegatzen saiatu dira, eta horien artean, Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari gonbidapena luzatzea izan zen, egoera hurbiletik ezagutzeko. Eskaera kurtso hasieran egin arren, bisita akabailan ailegatu da. Apirilaren 30ean, PSN, UPN eta NaBaiko ordezkariak eskola, Udalak erositako lur-eremua eta egun jantokia dena bisitatu zituzten.

tasareko hoditeriaren antolamendua lekuz aldatzea ere proposatu da.

Bertzalde, Telleriko garbitokia eta iturria eta San Martzial ermita mantendu eta zaharberritzea proposatu da NAOn.

«EZ GAITU HARRITU»

Gobernuak ingurumen eraginaren azterketari ongi-ikusia eman izanak «zorixarrez, ez gaitu batere harritzen». Hala adierazi du Aroztegia... Eta gero zer plataformak interesen arabera ohar bidez. Salatu duenez, «horrelako egitasmoetan Gobernuaren jorkamoldea enpresen interesen arabera izan da

beti». Plataformaren hitzetan, Aroztegiako egitasmoa, bereziki «auzi soziala» da: «Baztanen herri berri bat nahi dugu? Baztanek 252 etxebizitza gehiago behar ditu 850 hutsik dituenen?».

Horrekin batera, egitasmoa baimentzeko «ardura osoa Udalarena dela» iritzi dio, «ingurumen eragin azterketaren ebazpenaren ginetik egitasmoari ezezkoa eman diezaioke». Gaineratu duenez, «baztandarren interesen arabera ohar bidez, «horrelako egitasmoetan Gobernuaren jorkamoldea enpresen interesen arabera izan da

Kalean oinez, doike!

Egunerokoan ariketa fisikoa bultzatzeko, *Kalean oinez, doike!* kanpaina paratu da abian. Osasun arloko profesionalen, ikastetxeen, guraso elkartearen, Udalaren, Cerderna-Garalurren eta CRANA fundazioaren ekimena da.

tzuekin aliatu dela irudi duen».

Proiektua «Baztango interesen kontrakoa» dela uste du plataformak, «lurraldearen desegituraketa eta ondorio sozial sakonak ekarriko dituen». Horregatik gelditze eskatzen dugu».

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burrizte aztoa · Tfnoa: 948 582 043
ORONOZ - MUGAIRI

Eskisari
Jaim Urria
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero
KOTXKO LOREAK OPARI
NARBARTE
T. 948 59 22 00
Kantxararako detaileak, Kantonak elizara eta kantonariara eramaten ditugu, Kantonak eta berriko lanbarrak, zuhaitzak, patata salgai, berriko lanbarrak aukera zabala...

Aroztegiako egitasmoaren kontrako bizikleta martxa

Aroztegia... Etagero zer? plataformak proiektuaren kontrako egiteko bizikleta martxa antolatu du maiatzaren 22rako, larunbata. Eman pedalazoa Aroztegiako pelotazoi lelopean egiten da eta 10:30ean abiatuko da Elizondoko plazatik. Hau izanen

da ibilbidea: Elizondo, Elbete, Elizondo, Lekaroz, Telleria-hemen gosaria egiten da 11:30ean-, Oharriz, Irurita eta berriz Elizondora.

Bertzalde, aipatu, egitasmo honen kontrako, antzerkia prestatzeko asmoa ere ba-duela plataformak.

ARRANTZA → IZOKIN DENBORALDIA HASI DA

Bidasoako lehen izokina harrapatu du Martin Apezetxea oronoztarrak

1.500 eurotan saldu du eta 5,6 kilo eta 78 zentimetro ditu

TTIPI-TTAPA

Bidasoan izokin arrantza denboraldia ireki zen goiz berean, maiztaren 1ean, atera zuen *Lehenbizikoa* Martin Apezetxea oronoztarrak, 5,6 kilo eta 78 zentimetrokoa. 11:15 aldera harrapatu zuen Kaia inguruan. Eta 1.500 eurotan saldu zion Apezetxeak bertze oronoztarbati, Donostiako Alde Zaharreko Urbano eta Urola jabetxe ezagunen jabe den Patxi Aizpururi, hain zuten. Apezetxeak aipatu

zuen, 07:30erako hasi zen arrantzan, «gehi- en gustatzen zaidan lekua libre zegoela ikusita. Laugarren tiraldian harrapatu eta 10-12 minutuko borrokaren ondoren atera dut». Bidasoan sortutako izokina zen, ez baitzuen inolako markarik. Inoiz ez zuen *Lehenbizikoa* atera Apezetxeak, baina «Bidasoan 7-8 izokin eta Asturiasen bertze hiru» harrapatuak dituela jakinarazi zuen 51 urteko oronoztarrak. Izokina harrapatu bezain abudo, *Lehenbiziko Saria* eman zioten Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak presidentek eta idazkariak, Juan Otamendik eta Felix Martinezek.



ARGAZKIA: ONDIKOL
Felix Martinez, Martin Apezetxea oronoztarra *Lehenbizikoa*arekin eta Juan Otamendi.



Behorra eta honen kumea erasotu dituzte putreek Erratzun

Apirilaren 25eko eguerdian, kumea izan berri zuen behor bat erasotu zuten putreek Erratzun. Kumea hilik jaio zen, eta behorra ahul zegoela aprobetxatu zuten putreek, behorra hiltzeraino erasotzeko.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toaillak

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

UDALA → AZPIEGITURAK

338.053 euroko inbertsioa egin da Almandozko frontoia berritzen

Lanen artean, estalki berria jarri, eta paretak garbitu dira

TTIPI-TTAPA

Itxuraberritua gelditu da Almandozko frontoia. Hainbat lan egin dira eta horietan 338.053,78 euro gastatu.

Bertzeak bertze, estalki berria paratu zaio frontoiari, txapazkoa. Horrez gain, teilatu-hodi eta zorroten berriak ere jarri dira. Harmailak egurrez forratu; oztopo arkitektonikoak kendu eta oinezkoak eta ibilgailuak sartzeko malda erai-ki da; eskolara sartzeko eskailerak ere berritu di-

ra; ezker paretaren goikaldean aireztatze sarea paratu da, eta harri-hormak eta frontisa garbitu dira. Ate korredera berria dago orain, eta errotulazioa ere berria da. Horiek dira egin diren lanetako batzuk.

Amaiurko errota

Apirilaren 28az geroztik, itxita dago Amaiurko errota. Ur kanalizazioan hobekuntzak egin eta erreka presan arraintzako eskala bat erai-ki behar delako. Ingurugiro Ministerioaren eta Iparraldeko Ur konfederazioaren erabakia da, eta Bidasoa ibaian hartu dituzten neurrietako bat. Dena den, uztaile-rako irekitzea espero da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko bi argazkietan obra egin aitzinetik ageri da Almandozko frontoia, eta behekoan orain hartu duen itxura.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Ttun-Ttun Egun arrakastatsua

Bozate eta Arizkunen hasitako sokazko ttuntunaren inguruko ospakizunek Elizondon izan zuten segida maiatzeko lehenbiziko asteburuan. Ttuntulariak ez ezik, Gallarta, Biarno, Aragoi eta Baztango dantzariak ederki alaitu zituzten bazterrak, eta jendeak estimatu egin zuen.

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK

Arotxa

Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073
marobua@terra.es

ZUGARRAMURDI

LITERATURA → 'ZURE HERRIAN SORGINIK IZAN AL DA?' GAIAREN INGURUAN

Lehen Ipuin eta Marrazki Lehiaketa antolatu dute Udalak eta Museoak

Nafarroako ikasleei dago zuzendua eta maiatzaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

Koro eta Margari

Udalak eta Sorginen Museoak, Cederna Garalur elkarte eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearekin batera, Zugarramurdiko Lehen Haur Ipuin eta Marrazki Lehiaketa antolatu dute, Nafarroako eskoletako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua.

Proposatutako lana *Zure herrian sorginik izan al da?* gaiarekin lotua dago eta, modu honetan, ume eta gazte txoek Zugarramurdiko historia ezagutzeaz gain, euren herrietako historia ikertzea, euren arbasoen bizimoduaren eta ohiturenganako interesa piztea, eta sendabellarren munduan,

mitologian, sorgin ehiztari eta sorgin ehizan murgiltzea nahi da.

Lanak bidaltzeko azkeneko eguna maiatza-

ren 28a, ortziralda, da eta sari banaketa ekainaren 19an Sorginen Museoan izanen da, Sorginaren Egunaren

barnean.

Lehiaketaren oinarri buruzko informazio gehiago: www.turismozugarramurdi.com-en.



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Zugarren parkean hainbat moldaketa

Azketa eta Lapiztegia karrika elkartzen dituen bidexka konpodu zenaren berri eman ginuen, eta oraingo huntan bide horri egin zaizkion moldaketa batzuk aipagai ditugu: hiru mahain jarri dira, egurrezko bi eta harrizko bertze bat, eta erran behar da mahai hauek arrakasta handia izan dutela, jende aunitz etortzen baita beren bazkaria edo gosariarekin. Gainera, orain arte herrian ez zegoen gisa horretan egoteko tokirik. Toki berean, baina zugarrak landatu ziren maldan, zurezko lau aulki luze eman dira. Toki horretan izigarri bista ederra dago Larun eta Ibanteli aldera, eta bista horretaz trankil gozatzeko manera izan daiteke: zugarren itzalen azpian aulkian gustura jarrita...

GIZARTEA

Foru Polizia bide segurtasunari buruz solasean

TTIPI-TTAPA

Foru Poliziaren trafikoko bide hezkuntzako bi polizia Elizondo eta Doneztebeko ikastetxeetara hurbildu ziren apirilaren 19an bide segurtasunari buruzko bi hitzaldi ematera. Guztira 15 eta 18 urte tarteko hirurogei ikaslek parte hartu zuten solasaldietan. Hitzaldiak Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuak antolatutako kanpaina baten barne egin ziren eta trafikoaren arloko arazoak aztertu ziren: istripuak (zergatik gertatzen dira, ondorioak), arauak errespetatzea konponbide bezala, alkohola eta drogen eragina gidatzerakoan, gure ardurara oinezko eta gidari bezala, ziklomotorraren egoera bereziak (karneta ateratzeko baldintzak) eta abar. Azkenik, istripuen bide batzuk ere paratu ziren eta beren zergatiak aztertu zituzten. Hitzaldietan azpimarratu zuten, istripu gehienak pertsonaren erruz gertatzen dira: arauak ez errespetatuz (seinaleak, abiadura), hutsegiteak (sakeleko telefonoaren erabilpena gidatzerakoan, adibidez) eta inprudentziak eginez... Gisa berean, gerrikoa eta kasakoaren erabilpenaren eragin onuragarriari buruz ere hitz egin zuten istripuen ondorioak murrizteko.

MONTXO OSTATUA

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • YRDZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Aliantza bereziak
Jaunartzerako opariak
Udaberriko kolekzio berria
Eskatu aurrekontua

ANIMATU
bete dute arazoak

URREGINE BITXIDENDA TAILERRA

Santiago, 55 • ELIZONDO • 948 45 26 34

SENPERE

OSPAKIZUNAK → BESTA BATZORDEAK ANTOLATUTA

Aintzirako laugarren bestak maiatzaren 29an ospatuko dira

Afarira joan nahi duenak aitzinetik eman behar du izena

Franck DOLOSOR

Herri Urrats bestaren xehetasunak ondoko TTIPI TTAPAN eskainiko ditugu, aldizkari hau inprimategian baitzen ikastolen aldeko besta ospatu zen egunean. Aintziran segituz, halere, auzokideek ez dute aspertze-ko denborarik, ohiturari jarraikiz, maiatzeko azken larunbatean auzoko laugarren bestak ospatuko baitituzte tokiko besta batzordeak apailaturik.

13:00etan petanka zoiñgehiagoka eginen da bigarren aldikotz. 18:00etan Jamixel senperra -rrak kantaldia eskainiko du; eta gero aperitifia eta xerri tiki jatea eginen dira. Musikaz alaitua izan den afarian, herriko ekoizpenak dastatzen

ahalko dira beti bezala: urdaiazpikoak, pateak, gasna, ogia eta pastiza. Afariaren prezioa 20 eurokoa da helduentzat eta 10 eurokoa haurrentzat. Izenak eman behar dira maiatzaren 22a baino lehen telefonaz deituz: Maite 06 18 09 97 25 edo Séverine 05 59 54 51 41. Xehetasunak aintzirako besta batzordearen blog berrian irakur daitezke: <http://aintzirakobestak.unblog.fr/ortzana@gmail.com>.

AUZOZ-AUZO

Aintzirakoak auzoetako lehen bestak izaten dira eta gero lekukoa hartzen dute karrika, Amotze eta Ibarrungo gazteek. Senpereko bestak ereiaroaren azken asteburuan ospatuko dira. 25ean zikiroarekin hasiko dira; igandearekin herriarren bazkaria eginen da bertulariek alaiturik eta astelehenean Hego Amerikako eguna izanen



ARGAZKIAK: EVA CABALLERO ETA FRANCK DOLOSOR

Aintzirako besta batzordea gogotik ari da lanean animazioak segurtatzeko auzoan. Besten bitartez, auzokideek elgar ezagutzeko parada izaten dute. Aurtten, Jamixel kantari bakar-lari senperrak kantaldia eskainiko du.

da Capoeira talde batek animaturik eta saltsa dantzen ikastaroekin. Gero, uztaila erditsuan, Amotzeko bestetan Betagari taldea eta Lazkano, Brave eta Bessonart kantari senperra gazteak entzun ahal izanen dira, bertzeak bertze. Ibarrungo Mikeliak buruilaren 24tik goiti ospatuko dira aurtten.

Club-House etxea

Tenisean ari direnek egoi-

tza berria izanen dutelaster Herriko Etxeak Club House deitzen den biltoki bat eraikiko baitu aintzirako sartzean dauden tenis guneen ondoan. 90 metra karratuko etxe berri hortan bulego bat, bi aldagela, biltegi bat, sukalde tiki bat eta terraza bat izanen dira. Herriko Etxeak 100 000 euro baliatuko ditu lan hau egiteko. Gero eta senperra gehiago ari da tenisean eta beren urteko

zoiñgehiagoka agorri-laren 18tik buruilaren 7rat iraganen da aurtten.

Animazioak

Ondoko asteetan, animazio andana eginen da herrian. Maiatzaren 28an, Haurren Dantza; Ereiaroaren 6an Besta Berri, 13an Kaskoz Kasko mendi ibilaldia, 20an kermeza eta erroten ate idekitze eguna; eta agorri-laren 11an artzain xakur txapelketa.



estatxa
centro náutico

5
BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA

Itsasgintarako titulua lortzeko Eusko Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarrizko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

Donostia kalea • Sokoa Merkataritzaren gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com

PILOTA → PLEKA TRINKETEA

Iturbizke eta Ladebatek irabazi dute aurtengo pala txapelketa

Joko Berri txapelketan ere urruñarrak nagusitu dira

Xan HARRIAGUE

Gutziz urruñarra izan da Pleka trinketeko aurtengo pala txapelketaren finala. Joan den urtarriaz geroztik hainbat eta hainbat partida jokatu dira, eta finalak apirilaren 24an jokatu ziren, urte guziz bezala, giro politean. Azkenean, Ladebat eta Iturbizke urruñarrak nagusitu ziren herri berekoak diren Casamajor eta Bergeroten aurka. Finala estua izan zen, 50-46 finitu baitzuten.

Bigarren A mailan, Larretxe eta Ortiz erre-xago nagusitu ziren finalan, Galardi eta Ubiria menean hartuz, 50-36. Bigarren B mailan ere laster erabaki zen finala. Dutaret eta Bordagaraiak ez zuten problema nitzen izan

Olazagasti eta Lamothe menean hartzeko (50-31). Maila apalago batean bada ere, zailago izan zen Exposito eta Etxeberria, eta Anette eta Narbaitzen arteko finala hirugarren mailan, baina azkenean lehen biak nagusitu ziren, 50-45.

JOKO BERRI TXAPELKETA

Ikusgarria izan da zinez maila nagusiko aurtengo Joko Berri txapelketaren finala. Bi puntu-erengatik baizik ez ziren nagusitu Lizardi eta Tellier urruñarrak Laduche eta Ibarburu azkaindarraren aurka. Alta, partida-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Goiko argazkian, lehen mailako irabazleak, Iturbizke eta Ladebat, eta Casamajor eta Bergerot, trinketeko ordezkariak. Beheitikoan, bigarren B mailako irabazleak, Dutaret eta Bordagarai, eta Olazagasti eta Lamothe, epailearekin eta trinkete ordezkariak.

ren hasieran urruñarrak aise aitzinatu ziren, baina azkaindarek ez zuten amore eman, eta 29-tan berdindu zuten. Baina alferrik izan zen, azkenean Lizardi eta Tellier nagusitu baitzitzaizkien, 40-38. Bigarren mailako txapelketa Antxordoki eta Garat Zuraidarrentzat izan zen, finalean Massonde eta Dibar-i 40-27 irabaziz. Hirugarren eta

laugarren mailan, Azkaingo eta Sarako pilotari bartzuen arteko finalak izan ziren, baina bietan kankokoak izan ziren nagusi. Hirugarren mailan, Urdanpilleta eta Daubasek 40-30 irabazi zieten Mendionde eta Goienetxeri. Laugarrenean, Berriz, are errexago irabazi zuten Garat eta Tabernak, 40-22 nagusituz Irtatzoki eta Larronden aurka.

Aurten ere arrakasta handia izan du txapelketak 70 talde baino gehiagok parte hartu baitute.

Pindara ikuskizuna

Jean François Goie- txe *Ipotxek Pindara* ize-neko ikuskizuna eskainiko du heldu den ostira-lean plazan. Izenak dioten bezala, suarekin jostetan arituko da nahi duen moduan erabiliz.

DATUA

70

TALDE
baino gehiagok parte hartu dute aurtengo Joko Berri Txapelketan.

Martiko
Pol. Zaien, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Asistitutik edukiak eta entseak

DENDA
DONDUTIA
ASTELAREN
ORTZARALERA

8:30etik
12:30era

14:30etik
17:00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

HERRIKO
ETXERIKO
EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

Tel: 0559542519
Moztan eta Wintropue

SARA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tlfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

BURKAITZEA

• ostati
• erretegia

Zugarramundiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

Iñaki Alzuyet margoak

Plaketa dekoratibak eta eskularrak • Dekorazio eskularrak, lantzerak
Feltzak • Berretinak
Lantzerak eta berretinak koloretan • Plaketa
Herri eta agurra erabiltzen diren gelak ere da

Tel: 609 802 417 • Bar-txipi etxea • Lantzerak Auzoa • 31711 URDAZUBI
gintxura.alzuyet@yahoo.es

EZKONTZAK

Jose Luis Irtzoki Taberna eta **Edurne Portu Larralde**, Igantzikoa eta Lesakakoa, apirilaren 24an Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Akiorko Martinez Nuñez, Lesakakoa, apirilaren 23an.

Olaia Juanaberria Migeltorena, Nartartekoa, apirilaren 15ean.

Ander Retegi Azpiroz, Doneztebekoa, apirilaren 21ean.

Martxel Etxebeste Fuentes, Zubieta-koa, apirilaren 20an.

Izaro Elgorriaga Inza, Lesakakoa, apirilaren 19an.

Jenifer Estefany Burgete Veintimila, Arantzakoa, apirilaren 26an.

Shaiane Nuñez Tavarez, Sarakoa, apirilaren 14an.

Unai Labaien Larraia, Leitzakoa, apirilaren 26an.

Maria Arraras Saralegi, Leitzakoa, apirilaren 28an.

June Perez Mancho, Etxalarkoa, apirilaren 26an.

Danel Perez Mancho, Etxalarkoa, apirilaren 26an.

Ander Apeztegia Martinez, Sunbilla-koa, maiatzaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Frantxixko Goienetxe Iturbide, Zugarramurdikoa, apirilaren 28an, 93 urte.

Pantxika Loiarde Loiarde, Goizueta-koa, maiatzaren 2an, 89 urte.

M^a Josefa Alkasena Gorostidi, Elizondokoa, apirilaren 21ean, 94 urte.

M^a Soledad Larregi Irigoien, Garzaingoa, apirilaren 24an, 80 urte.

M^a Angeles Ganboa Mitxelorena, Berakoa, apirilaren 25ean, 58 urte.

Antonio Irtzoki Agesta, Berakoa, apirilaren 25ean, 41 urte.

Fermin Arregi Altzualde, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 25ean, 77 urte.

Antonio Agesta Oteiza, Arizkungoa, apirilaren 28an, 82 urte.

Martin Agerrebere Arretxea, Elizondokoa, maiatzaren 1ean, 90 urte.

Joxe Mari Irtzoki Telletxea, Lesakakoa, maiatzaren 2an, 86 urte.

Fermin Apeztegia Santesteban, Lesakakoa, maiatzaren 2an, 66 urte.

Francisco Goienetxe Iturbide, Sarakoa, apirilaren 28an, 93 urte.

Marie Jeanne Barberon, Sarakoa, maiatzaren 1ean, 100 urte.



Antonio Guillermo IRAZOKI AGESTA

Beran hil zen, 41 urte zituela

*Sobera abudo joan bazinen ere,
beti egongo zara gure artean.*

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guzietei,
MILA ESKER.

ZURE FAMILIA



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbartan, 2006ko maiatzaren 6an

IV. URTEURRENA

*Gure gau ilunak
Argituko dituen izarra.
Buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada.
Zu gure bihotzean beti altxatuko
dugun Jaione maitea izanen zara.*

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak
egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua*

KULTURKARI

Andutzeta 12, Etxalar

Tfnoa: 948 63 54 58

MENDI IBILALDIEN ZIRKUITUA → MAIATZAREN 23AN ETA 30EAN

Arantza eta Baztango mendi itzuliak egingen dira heldu diren igandeetan

30 eta 38 kilometroko zirkuituak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Mendian ibiltzea maite dutenek aukera ederra izanen dute datozen igandeetan, Arantza eta Baztango Mendi Itzuliak egingen baitira bat bertzearen ondotik. Ekainean, berriz, Sara eta Lesakakoek hartuko dute lekukoa eta irailean Aresokoak.

ARANTZAKO ITZULIA MAIATZAREN 23AN

Bi urtetik behin egingen den Arantzako ibilaldiarekin hasiko dute mendiz-mendiko itzulia mendizaleek. Elkaitza Elkarreak antolatutako Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 23an egingen da, igandearekin. Herriko plazatik abiatu eta leku berean emanen zaio akabera. Bitartean, Arrata errekatik jaitsiz, Aranibar baserria, Unanu, Itsaszelaita, Izu, Oirlargata, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mendaur (aukerakoa), Mairubaratza eta Zepuruko tontorrek pasatuko dituzte parte-hartzaileek.

Guztira 30 kilometroko itzulia izanen da, baina Mendaurrea joateko hautua egingen dutenek kilometro pare bat gehiago. Desnibela, berriz, 1.550 metrokoa izanen da. Ohi bezala, ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskaintzeko postuak paratuko dira. Izen-emateko bi auke-



Arantza eta Baztango mendi itzulien perfilak.

ra daude: egun berean, 06:30etik 08:00etara, eta 12 euro ordainduta, edo www.menditzulia.com atarian. Ibilbidea 07:00etatik 08:00etara hasiko da.

Parte hartzaile bakoitzari dagokion txartela irteerako kontrol postuan emanen zaio eta hura erakutsi beharko du gainerako kontrol postuetan. Bukaeran, parte hartzaile bakoitzari oroigarri bat emanen zaio.

BAZTANGO MAIATZAREN 30EAN

Baztango Mendigoizaleek antolatutako XVII. ibilaldia hilabeteko azken igandean, maiatzak 30, egingen da, eta aurtengoa Lekarozen hasi eta akituko da.

38 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute mendizaleek eta goizean 07:00-07:30ean abiatuko dira frontoitik, 10 euro ordainduta. Izena ai-

tzinetik emateko www.mendizmendi.com web orrian egin daiteke.

Irteera 260 metrotan dago eta ibilbideko punturik altuena Alkurruntz mendia—940 metro—izanen da. Frontoitik abiatutakoan, hauek izanen dira ibilbidean igaroko diren lekuri aipagarriak: Beltzuri, Eskisaroi, Zaldizuri, Alkurruntz, Betarteko lepoa, Unboto eta berriz Lekarozeko buelta. Lau kontrol-puntu iza-

ARANTZAKO ITZULIA

30

KILOMETRO
eta 1.550 metroko desnibela dituen itzulia da Arantzakoa. Bosgarren edizioa da aurtengoa eta maiatzaren 23an izanen da.

BAZTANGO ITZULIA

38

KILOMETRO
eta 2.000 metroko desnibela ditu Baztango Itzuliak. Hamazazpigarrena da aurtengoa da Lekarozen hasi eta akituko da. Maiatzaren 30ean izanen da.

nen dira: lehena Etxebertzeko bordan (11. kilometroa), bigarrena Zaldizuriri (22. kilometroan), hirugarrena Betarteko lepoan (28. kilometroan) eta azkena Lekarozko frontoian (38. kilometroan).

Informazio gehiago: www.baztangomendigoizalea.org atarian.

EKAINEN GEHIAGO

Arantza eta Baztangoaren ondotik, **Sara**ko mendi itzulia ekainaren 6an, eta **Lesakakoa** ekainaren 13an izanen direla, eta Aresokoa, irailean 5ean. Egunak hurbildu ahala emanen ditugu xehetasunak.

Nahiz eta esku pilota gehiago gustatu, neska pilotari gutxi zegoelako, ez zuen partidarik jokatzeko aukerarik izaten eta horregatik erabaki zuen palarekin saiatzea

Iera Agirre leitzarrak. Eta probatu eta gustatu. 13 urterekin palan hasi zen eta orain oso gustura dabil. Gainera, duela gutti, Oiartzunen antolatzen den emakumezkoen

Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazi du, aurten bigarren aldiz. Bi urte txapelketarik irabazi gabe pasatu ondotik, garaipena «oso pozik» hartu duela aitortu digu.

Iera AGIRRE | Leitzako palista

«Jende askok ez daki emakumeok pala txapelketak jokatzeko ditugula»

G. PIKABEA | LEITZA

Esku pilotagatik da ezagunagoa Leitza. Pilotari haundiak eman eta ematen segitzen duela. Baina pilotak baditu modalitate gehiago, eta pala da horietako bat. Ez behar bada bestea bezain ezaguna, baina bai emakumeen artean indar haundiagoa duena, eta gero eta gehiago. Iera Agirre da horietako bat, 13 urte zituenetik pala eskuan dabilen leitzarra. Nabarmentzen den horietakoa da gainera, berriki Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazi baitu Oiartzunen, bigarren aldiz.

Zazpi urte zituela hasi zen esku pilotan Aurrea pilota eskolan, baina 13rekin palarako saltoa egin zuen: «esku pilota gehiago gustatzen zitzaidan, baina oso neska gutxi ibiltzen zirenez, ez genuen partidak jokatzeko aukerarik izaten». Horregatik hasi zen palan. Eta halaxe segitzen du. Gerortik 12 bat txapel badiu irabaziak.

Leitzan palarako dagoen afizioa «nahiko txikia» delakoan dago Agirre: «gehiengoak esku pilotaren aldeko hautua egiten du». Eta orokorrean ere, palaren etorkizuna «nahiko ilun» ikusten du, «batez ere, goi mailari begiratuta. Izan ere, palako profesionalen berri gutxi entzuten da eta horrek adierazten du ez dagoela mugimendu handirik».



UTZITAKO ARGAZKIA

Iera Agirre Leitzako palistak Euskal Herriko txapela jantzi du orain gutxi Oiartzunen.

Baina emakumeen egoera desberdina da. Leitzarraren irudiko, «neska gazte asko heldu da atzetik eta pozgarria da benetan 8-10 urteko neskek palan horrelako gogoarekin ibiltzea». Hala ere, oraindik ba omen dago zeregina. «Federazio, komunikabide eta azken finean gizarteak berak ez baitio modalitate honi merezi duen laguntzarik eskaintzen». Alde horretatik, *Ni ere pilotari* bezalako ekimenak «oso garrantzitsutzat» jo ditu, «emakumeen palari bul-tzada handia emateko».

ESKERRAK

«Bi pertsonari bihotzez eskerrak. Txope entrenatzaileari dakidan guztia berari zor diodala-ko, eta bereziki amari, 7 urte nituenetik jolastu ditudan partida guztietan hor egoteagatik. Beraiek dira txapel bana merezi dutenak. Mila esker»

Jendearen ezjakintasunaz ere mintzatu zai-gu: «nik uste jende askok oraindik ez dakiela emakumeok ere pala txapelketak jokatzeko ditugula». Esan digunez, «askotan gertatu izan zait palan ibiltzen naizela esan eta jendea harriritu gelditu eta ez sinestea». Eta harridura aurpegiaren ondotik zer? Apustua: «beti proposatzen didate apusturen bat, jokatzeko badakidala demostratu beharko banu bezala».

Gizartean duen oihartzuna alde batera utzita, lerak gustukoa du palaz

aritzea. Aurrelaria da, eta bere ezaugarrien bat nabarmentzeko eskatuta, «hori besteek esan behar-ko luketela» erantzun digu. «Dena den, zerbait aipatzekotan errematea», azpimarratu digu. Hobe-tzeko, aldiz, «asko» omen du: «batez ere indar aldetik nahiko justu ibiltzen naiz». Mania berezirik ez duela esan digu, nahiz eta «beti pala berdinarekin eta eskumuturrekoak jantzita jolastea gustatu». Denak bezala, «irabaziz gero, beste alaitasun batekin» bueltatzen omen da etxera. Eta «nahiko lehiakorra» dela ere aitortu digu: «ez zait batere gustatzen galtzea».

Irakasle lanarekin tartekatzen ditu entrenamenduak Agirrek: astelehen eta ostegunetan bi saio egiten ditu, eta asteburuan partidarik ez badiu, beste bat. Palaz gain, korrika edo bizikleta ere gustatzen zaizkiola azaldu digu.

Eta bukatzeko bi mezu: batetik, leitzar neskei palan aritzeko gonbitea: «ea gehiago animatzen diren hain polita den kirol honetan ibiltzera». Eta bestetik, bi pertsonari «bihotzez eskerrak»: «Txope entrenatzaileari dakidan guztia berari zor diodala-ko, eta bereziki amari, 7 urte nituenetik jolastu ditudan partida guztietan hor egoteagatik. Beraiek dira txapel bana merezi dutenak. Mila esker».

KORRIKA → MAIATZAREN 15EAN ETA 16AN

Urdazubiko kontrabandisten lasterketa eta Iruritako krosa asteburu honetan

Urdazubikoa 10:00etan abiatuko da eta Iruritakoa 11:30ean

TTIPI-TTAPA | URDAZUBI/IRURITA

Urdazubi eta Iruritako Salbatore besten barne, aurten ere lasterketak jokatuko dira. Urdazubikoa larunbatean, maiatzak 15, eta Iruritakoa, igandean, maiatzak 16.

KONTRABANDISTEN LASTERKETA

10,3 kilometro eta 500 metroko desnibela duen ibilbidea egin beharko du te korrikalariek Urdazubin. Etxeberriko zubian

hasita, Iribere auzoari itzulia eman eta Elixondoko bordara joanen dira, eta handik Azkar mendirat. Gero, Mitxelenbordana barna Axularrerat jautsi eta berriz Iribere auzoari itzulia emanez helmugarat ailegatuko dira. Hasierako eta helmugako azken metroak zakua bizkarrean egin beharko dituzte, garai bateko kontrabandisten gisara.

Izen-ematea egun berean egin beharko da, 09:00etatik 10:00etara eta 10 euro ordainduta. Eta lasterketa 10:00etan abiatuko da.

Lehenbiziko sailkatuak 100 euro, kopa eta txapela eramanen ditu; bigarrenak 50 euro eta kopa



ARGAZKIA: HITZA

Louajari eta Melero nagusi Leitzako 32. krosean

Abdelfetah Louajari marokorrek hirugarrenez eta Maitane Melero iruñarrak irabazi dute Aurrera Kirol Elkarteak 32. aldiz antolatutako Leitzako Herri Krosa. Apirilaren 24an egin zen, eta eguraldia lagun inoizko jendetsuena izan zen: maila guztietan 220 parte-hartzaile atera ziren. Gizonezkoetan, irabazleak 31 minutu eta 41 segundo baino ez zituen behar izan 10 kilometroko itzulia osatzeko; emakumezkoetan, berriz, bost kilometroko zirkuitua osatzeko 19 minutu eta 4 segundo Melerok. Parte-hartzaileen artean, leitzar dezente atera zen. Seniorretan eta beteranoetan, adibidez, helmugaratu ziren 47 emakumezkoetatik 24 leitzarrak izan ziren, eta gizonetan, 137tik ia 70. Seniorretan, Fernando Irtzoki eta Garbiñe Hernandorena izan ziren herriko lehenak. 36:28ko denbora egin zuen Irtzokik eta 22:37koa Hernandorenak. Beteranoetan, berriz, Ane Egizabal izan zen lehen leitzarra (22:34) eta Mikel Altadill gizonetan (38:10). Benjaminetan Xabat Illarregi eta Miren Garro izan ziren lehen herriarrak; alebinetan Joanes Illarregi eta Leire Erbiti; infantiletan Iñigo Zabaleta eta Amaia Ezkurdia; kadeteetan, Ane Intxausti eta Iñaki Zabaleta. Eta junior mailan, Julen Sagastibeltza izan zen mutilen lehen leitzarra. Ez zen neskarik aurkeztu.

eta hirugarrenak 30 euro eta kopa. Parte-hartzaileek segurua, luntxa eta sari txiki bat jasoko dute.

IRURITAN ERE BAI

Igandean haur, gazte zein helduek izanen du-

te lasterka ibiltzeko aukera Iruritan. Alde batetik, III. Haur Krosa egingen da, 10:30ean hasita. Plazan eta errebotoke plazaren artean izanen da. Eta 11:30ean lasterketa nagusia hasiko da, aurten

bigarrenez. Plazatik abiatuz, Apotea, Artzeko borda eta Iperburun barna ibili ondotik, plazan akituko da. Akabailan, luntxa, sari banaketa eta sarienezko zozketa egingen da. Izen-ematea dohainik da.

KENPOA → EKAINAREN 5EAN KIROLDEGIAN

Herrialdeen arteko Kenpo-kai txapelketa egingen da ekainean Elizondon

Urdazubi eta Berako eskoletakoak ariko dira

defentsa pertsonaleko kirol mota hau, Urdazubi eta Beran baino ez baitira ematen ikastaroak. Baina ezagutzeko aukerak badira: gan den maiatzaren 8an Urdazubin Nafarroako lehen kenpo txapelketa jokatu zen. Eta ekainaren 5ean, Elizon-



ARGAZKIA: KORO IRAZOKI

EAEko kenpo txapelketan eskualdeko kirolariek erakustaldia eskaini zuten.

doko kiroldegian, herrialdeen arteko txapelketa egingen da, 16:00etan hasita: Nafarroako taldearekin batera, Euskal Antonomia Erkidegoa, Gazte-

la eta Leon eta Madril ariko dira lehian. Gonbidatu berezi gisa, berriz, Frantziako Federazioko kirolariak etorriko dira. Aipatu, bertalde, Nafarroa

osoan dauden kenpo eskola bakarrak Urdazubi eta Berakoak direnez, Nafarroako taldean ariko direnak eskualdekoak izanen direla.

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Eskualdean ez da sobera ezaguna Kenpo-kai,

maiatzak 13-26

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

<p>Bestak</p>  <p>BERROETA 2010.05.21/24</p> <p>Mendekoste bestak ekitaldiz ongi hornituak datoz</p> <p>Bezperako suziri eta txopo goratzearekin hasi eta hainbat ekitaldi izanen dira. Mendekoste Egunekeo (igandea) asto karre- rak 37. edizioa beteko du.</p>	<p>Kontzertuak</p>  <p>ELIZONDO 2010.05.22</p> <p>Soziedad Alkoholika zuzenean Lur dantzalekuan</p> <p>Soziedad Alkoholika taldeak kontzertua eskainiko du Lur dantzalekuan, 23:30ean. Sarrerak aitzinetik 12 eurotan eta takilan 15 eurotan salgai izanen dira.</p>	<p>Kontzertuak</p>  <p>DONAMARIA 2010.05.15</p> <p>Karmeldarren 50. urteurreneko kontzertua</p> <p>Josep Sancho klarinetejole kataluniarrak eta Gorka Hermosa akordeollari urretxuarrak <i>Tangosophy</i> kontzertua eskainiko dute komentuan.</p>
--	--	---

Erakusketak

ELIZONDO

Baztan Frankismoaren garaian

Maiatzaren 23ra arte Lekarozko institutuko ikasleek prestatutako erakusketa ikusgai Arizkunenean.

Iparretik hegoaldera erakusketa

Maiatzaren 24tik ekainaren 21era grabatu, pintura eta eskultura erakusketa ikusgai Arizkunenean.

BERA

Musika Eskolaren XXX. urteurrenaz argazkiak

Apirilaren 19tik ekainaren 17ra Isidoro Fagoaga udal musika eskolaren 30. urteurrena ospatzeko argazki erakusketa 16:30etik 19:00etara.

IRURITA

Martin Zalbaren argazkiak Olarin

Maiatzaren 23ra arte Olarin Martin Zalbaren *Fotografías nocturnas de las Bardenas* argazki erakusketa asteartetik igandera.

Ospakizunak

ELIZONDO

Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 16an Baztango Museo Etnografikoan sarrera doan. DVD emanaldiak 12:00etan eta 18:30ean eta Zigaren bilduma ezagutzeko bisita gidatua 17:00etan.

LEITZA

XXXIII. Kultur Aroa

Maiatzaren 23an hasita ekainaren 6ra bi-

tarte hainbat ekitaldi antolatu dira.

BERA

Gazte Eguna

Maiatzaren 15ean Gazte Eguna antolatu du Kaxerna Gaztetxeak. Xehetasunak 12. orrian.

ITUREN

Malerrekako Gazte Eguna

Maiatzaren 22an Gazte Eguna antolatu du Malerrekako Gazte Asanbladak.

Bestak

IRURITA

Salbatore bestak

Maiatzaren 12tik 16ra Salbatore bestak.

URDAZUBI

Salbatore bestak

Maiatzaren 12tik 16ra Salbatore bestak.

BERROETA

Mendekoste bestak

Maiatzaren 21etik 24ra Mendekoste Bestak ospatuko dira. Xehetasunak 31. orrian.

PROPOSAMENA

LEITZA

XXXIII. Kultur Aroa ekitaldiz gainezka

Ekitaldiz gainezka dator 33. aldiz antolatzen den Leitzako Kultur Aroa. Maiatzaren 23an herriko kirolariei eginen zaien omenaldiarekin hasi eta liburu aurkezpenak, zinema, haurrentzako jolasak, rock kontzertuak, hitzaldiak mendi ateraldiak... Maiatzaren 30ean artisauren azoka izanen da plazan eta ekainarako ere zenbait ekitaldi utzi dituzte.

**Solasaldiak**

ARIZKUN

Idazleekin solasean**Maiatzaren 13an**

Uxue Alberdi idazlearekin solasaldia izanen da Arizkungo Elkartean 20:00etan.

Antzerkiak

BERA

Mugaz Gain antzerki jaialdia

Maiatzaren 13 eta 14an DBHko ikasleen antzezlanak ikusgai Kultur Etxean.

Maiatzaren 20 eta 21ean LHko ikasleek. Sarrera: euro 1.

Antzerki eta Eskola elkarteak antolatua, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz.

Kontzertuak

DONAMARIA

Karmeldarren 50. urterrena ospatuz

Maiatzaren 15ean kontzertua eskainiko dute Josep Sancho & Gorka Hermosak *Tangosophy* erreperatorioa eskainiko dute 19:30ean komentuan.

ELIZONDO

Gernika-Lumoko musika banda

Maiatzaren 22an Gernika-Lumoko Segundo Olaeta Musika Eskolako bandaren kontzertua Ahaztuen Plazan 12:30ean.

Soziedad Alkoholikak Lur diskotekan joko du

Maiatzaren 22an kontzertua eskainiko du Soziedad Alkoholika taldeak Lur-en 23:30ean.

BERA

Triki eta akordeoi entzunaldia

Maiatzaren 25ean tri-

kitixa eta akordeoi en-
tzunaldia antolatatu du
Isidoro Fagoaga Musi-
ka Eskolak 17:30ean.

Tailerrak

AMAIUR

**Baratzeko mamu
tailerra**

Maiatzaren 15ean
eginen da 10:30etik
13:30era. Izen-
ematea, doan, Arizku-
nanean egin behar da.

ETXALAR

Power point ikastaroa

**Maiatzaren 24tik
28ra** power point
ikastaroa Kultur
Etxean, 16:00etatik
20:00etara (24 euro).

Lehiaketak

BERA

**Sanestebanetako
kartel lehiaketa**

Ekainaren 4a arte
aurkezten ahal dira
lanak Herriko Etxean.

Mendi ateraldiak

ARANTZA

**Arantzako V. Mendi
Itzulia**

Maiatzaren 23an.
Xehetasunak 39. or.

BAZTAN

**Baztango
Mendigoizaleak**

Maiatzaren 16an Al-
kurruntzera ateraldia.
Maiatzaren 23an
Arantzako ibilaldian
parte hartuko dute.

LEITZA


**Mendibil taldea
Arabara**

Maiatzaren 16an En-
tziako mendizerran
Andoin-Opakua ze-
harkaldia eginen dute.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Sustrai beltzak

JON ARRETXE

Elkar, 2010

Terrorearen generoa landu du oraingoan Jon Arretxek, hamaika istorio beldurgarri biltzen dituen ipuin liburu honekin. Hilketak odoltsuak aurkituko ditugu batean, zomorroak ilunpean bestean, ulertu ezinezko gaizakeria eta krudelkeria hurrengoan... Izugarrikeria horien gertalekuak, berriz, munduko hainbat txoko izan litezke: Marrakex, Siberia, Amazonia, Lahore, Varanasi... baina baita aireportu aseptiko bat, edo norberaren atariko etxe arrunt bat ere, ikarak nonahi eta noiznahi harrapa gaitzake-eta, ustekabeen gehienetan. Sustrai beltzak, berez, ez da berria. Elea argitaletxeak plaza-ratu zuen 2006an, baina laster amaitu ziren lehen argitaraldi hartako aleak, eta Eleak berak ere atak itxi zituen. Ordea, liburuak oraindik ere bide luzea duela pentsatu eta Elkarrera jo zuen Arretxek. Eta Ateko bandan bildumaren barruan berrargitaratu dute.

Musika



Deseo:
Cartografía imposible

DOCTOR DESEO

Baga-giga
Musika Ideiak, 2010

Doctor Deseo arrastoa garbi uzten ari den taldeetako bat bilakatu da dagoeneko, arrastok, ezpain-margo marrak, desira susmakaitzak, musika eta samurtasuna, testu berezi eta nahastezinak, eta jarrera bizkorreko jite estetikoa. Doctor Deseo taldearen lehen urratsak 1986ko Bilbo hartan hasi ziren. Urteak dira eta aldaketak izan dira talde barrenean. Oraindik, ordea, Josik eta Francisek hor segitzen dute, euren erabide grina iraunkorra mantenduz. Doctor Deseo taldearen hamaigarren diskoa (*Deseo: Cartografía imposible*) osatzen duten abestiek ez diote inolako menpekotasunik zor patologiarenean zientziari eta desiraren arlo alkimikoaren ibilaldi estetikoan dute oinarria. Doctor Deseok gorputz-eskalara egokitutako lur eremua josi, eratu eta eraikitzen du, non ingurumari guztiak arakatu, bilatu eta birbilatzen diren zentzumenaren kontzientziatik, baita iparrorrazaren ikuspegitik ere.

Internet



Arantzako Mendi
Itzuliaren webgunea

MENDITZULIA.COM

Mendi Itzulien garaia heldu da eta eskualdetik sobera mugitu gabe izanen da mendian ibiltzeko aukera datozen asteetan. Zehazki, Arantzako Mendi Itzuliaren inguruko informazioa topatuko dute mendizaleek www.mendizulia.com webgunean: ibilbidea, perfila, arauak, nola ailegatu, argazkiak, kamisetak erosteko edo izena emateko aukera ematen du atalez-atal. Informazio zehatzari, umore ukitua ere ematen diote gainera. Honela, ibilaldia egitera errepidez ailegatzeko moduz gain, New Yorketik hegazkinez ailegatzeko aukera ere zehazten du webguneak: «JFK aireportuan hegazkina hartu, Mendaurrerako bidean jarri eta Ekaitzako kaxkoan ikurriña ikusterakoan, salto!». Eta arauetan ere bitxikeria: «Kontrolatara denbora minimoa baino lehenago iristen denari, minutu adina kilo harri sartuko zaizkio motxilan». Motxilarik ez balu, antolakuntzak bat utziko lioke.

Nire aukera



Josetxo GOIKOETXEA
Aresoko langilea

**«Baratzean aritzea,
mendian ibiltzea
eta eguzkia asko
gustatzen zaizkit»**

Leitzako Sarriopapel lantegiko langile are-soarrari «baratzean aritzeko astia hartzea gustatzen» zaio, «baita mendian bueltaxka bat ematea ere». Eguneroko prentsa irakurtzea ere gustatzen zaio, «*Berria* irakurtzen dut, baina liburuak gutxiago. Orain *Loiolako Hegiak* irakurtzen hasi naiz». Denborapasarako gurutzegramak eta, batez ere sudokuak ere gustatzen zaizkio. «Horrek ez du esan nahi denbora asko dudarik, baina tarteka telebista ikusten jartzen naizenean egiten ditut». Mendia eta hondartza biak gustuko ditu, hori bai «eguzkia lagun denean». Hemen inguruan dagoenean Hondarribia, Donostia edo Orio aldera joaten da hondartzara. Kanpora ere egin ditu bidaiaren batzuk. «Duela 12 bat urte emaztea eta alabekin Dominikar Errepublikara joan ginen eta oso gustora, baina esperientzia txarra ere izan dut Tunisian, ez zitzaidan batere gustatu, denak saltzeko asmoz eta erosten ez bazenuen haserre...».

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@aol.com.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Zazpigarutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

IRUN. Hiri erdian, Colon aparkalekutik hurbil, etxebizitza salgai. 2 logela, egongela eta sukaldea eta bainugela hornituak. Igoailu berria eta berogailua. ☎637 559152.

LEITZA. 83 m²ko pisua salgai. Eguzkitsua. Negoziagarria. ☎948 625212/ 652 730155.

ELIZONDO. Paularenan pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa eta trastelekua. Egoera onean. Leiho guztiek kanpokaldera ematen dute. 147.250 euro. ☎639 003860.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua eta berokuntza zentrala. Gela guztiak kanpo aldera. ☎647 712676.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiPI.net edo www.ttiPI.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ETXALAR. Lizaietako paraje zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

LESAKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai. Prezio onean. ☎609 477277/ 618 188300.

ORONAZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai: 5 logela, 3 bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua eta portxea. Prezioa zuk ikusi ondotik jarri. ☎677 072437.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

BURLATA. Pisua errentan emateko. 3 logela eta berogailua. Prezio onean. ☎690041308/679426498.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela eta bainugela. Mobleztatua. ☎646 091754.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

ETXALAR. Pisua errentan hartuko nuke. ☎661 277943.

DONEZTEBE edo inguruko herrietan, familia batek baserria edo etxea (lur zatia baldin badu, hobe) errentan hartu nahi du. ☎617 543034.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678

GARAJEAK/LOKALAK
errentan eman

ELIZONDO. 100 m²ko lokal komertziala errentan emateko. ☎948 580 978.

LANA

eskaintzak

NAFARROA osoan, neska batek etxean edo ge-

riatrian lan eginen luke. ☎667 230372.

Geriatriako auxiliarrak jende heldua edo ezindua zainduko luke. Zainketa pertsonalean, etxe-ko lanetan, laguntza bizitza sozialean eta ospitalean eta etxean gauak ere bai. Esperientzia profesionala kontrastatua. ☎609 477277.

DONEZTEBEko ama batek haurrak zainduko lituzke, orduka edo hila-betek. ☎679 210910.

LANA

eskariak

ETXALAR. Etxalarko bentatan asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎948 635000.

MOTORRAK

salgai

BMW 320d touring salgai. Egoera ezin hobean eta ekipatua. Xenon la-

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu surretentzako konpromisarik gabe
Jon Bernal Erasmuak
Tel. 948 634 868 - 647 370 144
Gertutze - ARANTZA

ROSAL BELZUNGI
PSIKOANALISTA
Kontabilitate eskatu ordua
☎ 948 272011 (RUANA)
☎ 948 580975
Jauregi Urtebe 42-2-D - ELIZONDO

rrua, llantak, klima bizona, argi automatikoak, isofix, 6 airbag, mp3... Mantenimendua eguneratua. ☎669 312220.



Seat Ibiza 1.6 sport salgai. 2000. urtekoa. 132.000 kilometro. Egoera onean. ☎677 859348.

Gas-gas 200 enducross motorra salgai. 3 urte ditu, gutti erabilia eta oso egoera onean. ☎628 357912.

Nissan Almera 1.6 gasolina salgai. 11 urte ditu eta egoera onean. 1.800 euro. ☎645 735886.

Citroen C-max TDCI autoa salgai. 115 zaldikoa. 2009koa eta 2012ra arte-

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(apirilaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 44,00 € (-4,00)

Zerri gizena
1,050 € kilo. (+0,020)

Zerramak:
0,360€ Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,86 (=)

1.koa 3,56 (=)

2.koa 2,83 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,96 (=)

1.koa 3,66 (=)

2.koa 2,93 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,40/2,60
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,10
8-10 kilokoak: 4,20/4,50

<p>GIDARIA erakunde publikoetan dokumentazioa eta baluak banatzeko. Lanegun etengabea Lanpostu finkoak: 677467988</p>	<p>HERRI LANETAN aritzeko mantenimendurako langileak, lorezainak, gidariak, zaindariak, etab. behar dira. Lanegun etengabea. 666485021</p>	<p>ZAINDARIAK zentro publikotarako. Titulu ez da beharrezkoa. Lanegun etengabea. 610719782</p>	<p>HARRERAGILE TELEFONISTAK behar dira egoitza publikoetan lan egiteko. Lanegun etengabea. 607254240</p>	<p>SUKALDEKO LAGUNTAILEAK eta sukaldariak Erakunde Publikoetan lan egiteko. Lanegun etengabea. Lanpostu finkoak: 607254941</p>
---	--	--	--	--

ko garantiarekin. 17.000 kilometro. Klimatizagailua, bluetooth, mp3, iso-fix, kristal beltzak, argi eta eur sensoreak, abiaduraren kontrola, karroarentzako bola. Egoera ezin hobean. Prezioa: 15.000 euro, transferentzai barne. ☎699 634554.



BORTZIRI UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

Talleres SANTESTEBAN
Zure neurritan egindako enpresak

Doneztebeko gasolindegian ondoan erakusketa

DONEZTEBE • Leitzako errep. 80 • T 948 450 282

Yamaha HT 350 motora salgai. B 5234 IG matrikula. ☎620 135721.



ANIMALIAK salerosketak
Bi ahari mutur gorri salgai. ☎659 081422.

DENETARIK galdu-aurkituak
BERA. Toki-Onako apar-kalekuan sakeleko telefonoa agertu da. ☎948 625000 (goizez deitu, 15:00 arte).

doak salgai. 60 euro bakoitzak. ☎647 712676.

Gutti erabilitako **garbigailua** salgai. ☎948 610865/ 617 595853.

Lur begetala eta ongaria salgai. ☎616513491.

Surako **egur lotea** salgai. ☎699 461394.

Belar idorren bolak salgai. ☎660 393436.

2,90 metroko luzera duten 255 **arkazi pikete** salgai. Ederrak. ☎948 634120.

DONAMARIA. Ferrol gasolindegiko berogailua salgai, egoera onean eta

gutxi erabilia. ☎618 962777.



MOTORRAK tailerrak

GANIX TAILERRA
Bilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Burlandata, 7 • Tel: 948 630 647

DENETARIK salerosketak
Behien **txuleta zintak** eta **solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

Ardien eskubideak (pago único) erosiko nituzke. ☎948 450659.

Bigarren eskuko **inberraduroa** erosiko nuke. ☎679 609615.

Belarra paketatzea salgai, preziozkoa. Belarra **biltzeko** makina eta belarrari **buelta emateko** makina ere salgai, Khun markakoak. ☎649575549.

Sukalde ekonomika kalfaktora salgai, egoera onean. ☎620 520010.

Gutti goitibeheiti 8x8 neurriko bigarren eskuko **tol-**

2010ean ere...
Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

ttipi-ttapa • gurea bezainok aukeraturako proiektuak • can

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:
15.996

Zure laguntza eskertzeko biltza ederrak hau onartzen dituzte!

Cada ezazu TTIPI-TTAPAren proiektu aukeratu batean laguntza materiala emateko. Biltzairek zure bileran eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 20 iteko aldiaren 31a baino lehen.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI (gasolina eta diesela)
MITSUBISHI (luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK oparitzeko

Zakur-kumeak opari-tzeko. ☎652 725037.


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Aunitz urtez **JAIONE!** Ailegatu zaizu 26.a zuri ere e! Larun - batean segituko dugu ortziralean hasitako ospakizunekin! Muxu haundi bat!



JOHANES ARIZMENDIri aunitz urtez Baztango familia guztiaren partetik!!! Muxu aunitz!!!



OIER MARTIN FAGOAGAK maiatzaren 6an urtea bete du. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat.



XABI LEIZA MAEZTU arantzarrak urtea bete du maiatzaren 4an. Aunitz urtez ama, atta, bi amatxi eta osaben partetik.



IMANOL eta **MIGUELEK** maiatzaren 18an eta 19an 5 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat.



MIGUEL UBIRIA ALZATEK maiatzaren 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat. Aupa Osasuna!



Iruritako **JULEN ELIZAINZIN ALZUARTEK** urtea bete du maiatzaren 11n. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat Naroaren partetik.



Aurtizko **ITXASO** eta **IRATI MINDEGIAK** maiatzaren 24an 13 urte beteko dituzte. Zorionak zuen laguneren partetik. Muxu haundi bat eta berendu goxogoxoa prestatu!



JOSEBA ITURBIDEK maiatzaren 8an urteak bete ditu. Aunitz urte guraso, anaia, osaba-izeba, lehengusu eta Ekhiñeren partetik.



Zorionak **JOSEBA!** Aunitz urtez Markel eta Zuriñeren partetik. Aunitz maite zaitugu. Muxu bat!



OHIAN MUGIKA GARNIKA. Zorionak polita! Maiatzaren 10ean 2 urte bete ditu. Zure gurasoek asko maite zaituzte!



EIDER CARRILLO FAGOAGA irundarrak maiatzaren 5ean 9 urte bete ditu eta 9an Lehenengo Jaunartzea hartu du. Zorionak Iزارo ahizpa, Aiora eta Malen lehengusinak eta familia osoaren partetik. Muxu pila-pila eta ondo pasa!



ANE eta **AIMAR TELLETXEA IRAOLAK** urteak beteko dituzte maiatzaren 4an eta 15ean. Zorionak zuen aita, ama eta Markelen partetik. Muxu haundi bat.



IRIA REKONDO ANTZIZARREK eta **OIHAN ANTZIZAR BEGIRISTAINEK** maiatzaren 10ean eta 28an urtea beteko dute. Zorionak eta muxu haundi bat aiton-amonen partetik.



IRIA REKONDO ANTZIZARREK urtea bete du maiatzaren 10ean. Urte askotarako printzesa etxeko guttien partetik. Muxuk!



OIHAN ANTZIZAR BEGIRISTAINEK urtea beteko du maiatzaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat aitaxo eta amatxoren partetik.



Sunbillako **PAUL IRAZOKIRI** zorionak aunitz maiatzaren 19ko partez. Muxu haundi bat zure seme Pablo eta Aliziaren partetik.



Maiatzaren 3an eta 4an **ROSA** eta **LOREA** ama-alaben artean 39 udaberri bete zituzten. 38+1 musu handi eta aunitz urtez familiaren partetik.




UNAX ZABALETA GARTZIA leitzarrak maiatzaren 24an 2 urte beteko ditu. Zorionak Aurtizko familiaren partetik eta berendu goxoa prestatu.



HELENE RAMIREZ MADERA beratarrak urtea beteko du maiatzaren 13an. Zorionak Leire eta Iratxeren partetik. Muxu haundi bat.



Donostiako **SOFIA JIMENEZ ZAPIAINEK** maiatzaren 21ean 2 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki zure anaia Mikelen partetik. Zorionak sorgintxo!



ANDRÉ ALLAN DA COSTA SILVA lesakarrak 7 urte bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.

hagarroan
euskaraz
bizitzeko
eskuidea

KONTSEILUA

euskaraz

maiatzak 15 | 18:00etan
golem zinemak

Herritarrei parte hartzeko
deia egiten diegu

ttipi-ttapa

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



DESKONTUAK
ZOZKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

ZOZKETAK

ttipi txarteldun guztien artean
zozketatuko dira sari hauek

ZORIONAK

* Hilabete bakoeko epia sariak bitzeko



**KAMISETA 1
ONDDO
TA PUNTO**

www.onddotapunto.com



**LOTEA
KALOTXA (BERA)
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK**



**RUPER ORDORIKA
MUSIKA CDA
ELKAR**
www.elkar.com



**LOTEA
MARTIKO**
www.martiko.com



**2 LIBURU
TTARTALO**
www.ttartalo.com



**2 SARRERA
ARTIC
IZOTZ JAUREGIRA**
www.hieloartic.com

DESKONTUAK



SOZIEDAD ALKOHOLIKA +THEEYES

MAITZAK
22
LARUNBATA

LURDJOTAK:
**DJNASH
DJAK**

23:30 - 12€ Aurretik 15€ Bertan
Salmenta puntuak: Elizondo, Antxitonea, Txakota | Lesaka: Atxaspi | Iruña: El Infierno

KRISI-KONTRAKOGAUA

MAITZAK
29
LARUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aurrera 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03:30ak arte

JOSEINA

EKAINAK
5
LARUNBATA



LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 - 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03:30ak arte

SEIREN

EKAINAK
12
LARUNBATA
LURDJOTAK:
DJNASH

00:30 - 8€ Aurretik 10€ Bertan
Salmenta puntuak: Elizondo, Antxitonea, Txakota | Lesaka: Atxaspi | Iruña: El Infierno

REMEMBERBESTA

EKAINAK
19
LARUNBATA

LURDJOTAK:
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik
02:00etatik aurrera 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03:30ak arte

